



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2006ko azaroaren 17a

99. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- Foru Lege proiektua, Nafarroako errepideei buruzkoa (2. or.).
- Foru Lege proiektua, Nafarroako poliziei buruzkoa (51. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Nafarroako errepedeei buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko azaroaren 13an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 2006ko azaroaren 6an hartutako erabakiaren bidez, Nafarroako errepedeei buruzko Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Nafarroako errepedeei buruzko Foru Lege proiektua prozedura arruntari jarraikiz tramitatzea.

2. Proiektu horretaz irizpena emateko ahalmena Herrilan, Garraio eta Komunikazio Batzordearen esku uztea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denean, **hamabost egun balioduneko epea hasiko da eta 2006ko abenduaren 11ko eguerdiko hamabietan bukatuko da.** Epe horretan, Erregelamenduko 126. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentarietako zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proiektuari.

Iruñean, 2006ko azaroaren 13an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Nafarroako errepedeei buruzko Foru Lege proiektua

ZIOEN AZALPENEA

1

Nafarroak, bere foru eraentzaren arabera, bide eta errepedeen arloko ahalmen eta eskumen osoak izan ditu bere gain historian zehar.

Bide eta errepedeak eraiki, finantzatu eta zaintzeko arloan Nafarroak izan duen araubide pribatibo berezi eta historikoa nabarmendu behar dugu; araubide hori izatea gure probintziaren berezitasuna zen Espainiako gainerako probintzien aldean, eta haren jatorria 1783an eta 1784an Karlos III.aren gobernuak emandako errege zedulak dira, eskumen hori Nafarroako Diputazioaren esku utzi zutenak. Une hartan garrantzitsua izan zen halaber Diputazioaren borondatea baliabide berekiez baliatuz ekiteko Errege Kontseiluak bere gain hartzen ez zuenari. Orduetik hasita Nafarroako bide eta errepedeen kudeaketa eta administrazioa foru eraentzaren erabileraren bereizgarrietako bat bilakatu da.

Foruak berresteko 1839ko urriaren 25eko Legea eta 1841eko abuztuaren 16ko Lege Itundua foru eraentza aitortzeko xedapen funtsezkoak dira. Biek ala biek Nafarroako jatorrizko zuzenbide historikoetan dute oinarri, eta haien babesean gorde eta garatu da foru eraentza.

Foru eraentzak errepedeen arloan duen berezitasuna behin baino gehiagotan aitortu dute espresuki estatuko lege-egileek. Halatan, Errepedeei buruzko abenduaren 19ko 51/1974 Legeak indarra zuela, eta haren azken xedapenetako laugarrenean xedatutakoarekin bat, urriaren 31ko 2875/1975 Dekretuaren bidez lege hori Nafarroarako moldatu zen. Hauxe xedatu zuen 4. artikuluan: "Aipatutako errepedeei buruzko legea Nafarroan eta bere foru administrazioeko organo eskudunetan aplikatuko da soilik eraentza berezi horren printzipio eta arauen kontra ez doanetan, eta ebazpenak lurral-

de horretan indarra duen kontrol juridikoaren menpean egonen dira.

1978ko abenduaren 27ko Konstituzioaren lehen xedapen gehigarrian xedatzen denez, Konstituzioak foru lurraldeetako eskubide historikoak babestu eta errespetatzen ditu. Nafarroak errepideen arloan dituen eskumenak aitorturik daude gaur egun, eta Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 49. artikuluko 1.f) eta 3. idatz-zatietan jasota dago eskumen historiko eta eskusiboak direla.

Esparru sektorialean, Nafarroako eraentzaren berezitasuna, gaur egun eta estatuko legeriari dagokionez, Errepideei buruzko uztailaren 29ko 25/1988 Legearen hirugarren xedapen gehigarrian ageri da jasota, hauxe xedatzen baitu: "Eskubide historikoak dituzten foru lurraldeetako gobernu organoen eskumenerako errepideak araubide juridiko indardunari jarraikiz planifikatu, proiektatu, eraiki, zaindu, aldatu, finantzatu, erabili eta ustiatuko dira".

Nafarroa asko baliatu da arlo honetako eskumenez, eta errepide sare osatua ezarri du, bere arau multzo berariazkoa garatzearekin batera. Aitzitik, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoa onetsi ondoren, Nafarroako errepide sarean handitze eta hobetze material garrantzizkoak egin dituen arren, bertako legeriaren bilakaera ez da parekoa izan. Ildo horretan, gaur arte arlo honetako funtsezko eta oinarritzko araua izan den Nafarroako errepideen babeserako urriaren 10eko 11/1986 Foru Legeak gabeziak ditu egun, eta hori oztopo da errepideak era modernoan kudeatu eta ustiatzeko dakartzan premiei erantzuteko, garrantzi handiko zerbitzu publikoa den aldetik behar duen kalitate mailarekin.

Foru lege honen asmoa egoera hori aldatzea da. Testu berriak errepideen arloko legeak berri, gaurkotu eta modernizatzeko asmoa du, eta aldi berean errepideei eragiten dieten alderdi guztien garapen osatua egitea, iragan den denboran atzemandako beharretarako konponbide eraginkorrak eskaintzeko filosofiatik abiatu eta gai honetan gureganatu dugun esperientzia kontuan hartuta.

2

Esan bezala, testu berriaren abiapuntua kezka bat da, foru legearen aplikazioa ahal den eraginkorrena izatea alegia, eta xedea du tresna erabilgarria izatea, Nafarroako errepideen sare zabala egokiro kudeatzen lagungarri, horrela bideetako

zerbitzu publiko hobe eta errepideen herritar erabilzaileentzako arreta ere hobe lortzeko.

Xede hori, foru legearen egituran eta luzeran bertan agerian geratzen denez, testu osoan zehar islatu da zalantzarik gabe, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren bideen jabari publikoa planifikatu, proiektatu, finantzatu eta eraikitzeari buruzko arauak emanez, bai eta haien ustiapen eta babesari buruzkoak ere.

Foru legeak sei titulu ditu, lau xedapen gehigarri, bi iragankor, indargabetzaile bat eta bi azken xedapen; bi eranskin ere baditu.

I. tituluan foru legearen xedea eta helburua zehazten dira, errepidearen ohiko esparrua gaintu eta bideen jabari publikoaren esparru zabalagoan kokatuz. Halatan, bi alderdi bateratu nahi izan dira: errepidea bera eta harekin loturik dauden gainerako elementuak batetik eta errealitate konplexu horri aplikatzen zaion araubide juridiko berariazkoa bestetik. Guztia ahaztu gabe gaur egun ere errepidea bera dela, bere titularitatearen bitartez, bere baitan biltzen dituen bideetako zerbitzu publikoa deitutakoaren erantzukizuna eta titularitate horretaz baliatzeak dakartzan eskumenak eta ahalmenak. Ildo horretan, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioari aitortzen zaion titularitatea Nafarroako errepide sarea izenekoari loturik agertzen da; sare horretan sarturik egoteko bi baldintza ezartzen dira: errepidea Foru Komunitateko lurraldean barna joatea eta Nafarroako Errepideen Katalogoan sartuta egotea. Katalogo hori da Nafarroako Errepideen Sareko errepideak identifikatu eta haien inbentarioa egiteko tresna publikoa.

Foru legearen I. tituluaren gainerako edukia honakoek osatzen dute: errepidearen kontzeptua, errepidearen zatiak eta motak, eta bideen jabari publikoan sarturik dauden eremu funtzionalak eta zerbitzukoak. Legearen atal horretan nabarmendu beharra dago, berriak baitira, administrazioak arlo honetan jarduteko irizpide orokorrak ezartzen dituen agindua, zeinak gure garaiko administrazio moderno batek dituen eskakizunei erantzuten dien, eta errepideen definizioa eta sailkapena, bide bikoiztuak eta prestazio handiko errepideak ere barne hartzen dituen; aipatutako bi bide mota horiek, autobideek eta autobiek osatzen dute Nafarroako edukiera handiko errepideen sarea.

II. titulua errepideak planifikatu, proiektatu eta eraikitzeari buruzkoa da, eta Nafarroako berezko araudian arlo honetan dagoen hutsunea betetzeko xedea du. Kasu bakoitzean lanerako tresna malgu eta zaluak eskaintzeko asmoa du atal horrek, baina bermatuz, aldi berean, errepideak segurtasun juridiko, koordinazio, herritarren parte-hartze

eta kalitate maila egokiek jartzen direla abian. Kapituluetak lehenak aurrenekoz arautzen du osotara Nafarroako errepideen plan zuzendariari dagokion guztia; plan zuzendaria Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren esparruan errepideak planifikatzeko tresna tekniko eta juridikoa da, lurralde antolamenduko tresnaren izaerarekin. Bigarren kapituluaren errepideak egiteko behar diren dokumentu teknikoak aurreikusten dira (azterlan informatiboak eta eraikitze proiektuak), horien edukia eta tramitaziorako prozedura zehaztuta. Azkenik, kapitulu batek hiri planeamenduaren eta bide planeamenduaren arteko koordinazioa du mintzagai, garrantzi handikoa baita Nafarroako errepide sarearen planifikazioan, zenbait administrazio ezberdinen eskumenen jokaleku izanik.

III. titulua bideen jabari publikoko jarduketei eta haren ustiapenari buruzkoa da. Finantzazioari dagokionez, berritasun handiena hura lege testuan agertzea bera da, finantzabide gehienak eza-gunak baitira. Legeak finantzazioa aitortzeak eraginkortasuna areagotzea eta baliabideak lortzeko bide gehiago lantzea du xede, bideen zerbitzu publikoa kalitatezkoa izan dadin. Ustiatzeari buruzko kapituluaren zuzeneko kudeaketari eutsi zaio; ahal dela doakoa izan da erabiltzaileentzat, baina beste aukera batzuetara irekia, besteak beste Nafarroako errepide sarea kudeatzeko ente instrumentalak sortzea.

IV. tituluan bideen jabari publikoa babesteko araubidea xedatzen da. Horretarako, I. eta II. kapituluetan aldameneko ondasunei mugak ezarri eta erabilerak kontrolatzeko ohiko sistema jasotzen da, errepideko babes eremuak (alboko jabari publikoko eremuak eta zortasun eremuak) eta eraikinen lerroa ezarri eta mugatuz. Errepideetako publizitatea III. kapituluaren arautu da, eta IV. eta V. kapituluetan baimen orokorrak eta bereziak, hurrenez hurren. Kasu berezien artean itxiturak, sarbideak eta zerbitzuguneak paratzeko baimenak daude aurreikusirik. IV. tituluko azkeneko kapituluaren bideen arloko legeak babesteko neurriak buruzkoa da, eta hori berritasuna da errepideen arloan, xedea izanik administrazioaren erantzuna azkarra goa eta egokiagoa lortzea bide arloko arau-hausteen aurrean.

V. tituluko hiru kapituluak hiri barneko tarteei eta zeharbideei buruzkoak dira. Bertan bi kontzeptuak eta eskumenen araubidea zehazten dira, betiere administrazio publiko ezberdinen ardurapean dauden jarduketak-esparru horien kudeaketa hobetzeko helburua kontuan hartuta uneoro. Horri dagokionez, kasu horietan eskumenen banaketa aipatu beharra dago, izan ere errepideek hiri barnean egiten dituzten tartetean toki entitateak dira

baimenak eman eta zehapen ahalmenez baliatze-ko eskumenak dituztenak, salbu eta galtzadaren errealitate fisikoari edo errepidearen zelaigunearen gainerakoari eragiten badiu, horrelakoetan eskumena Nafarroako Foru Komunitateko administrazioan errepideen eskumena duen departamentuarena izan daiteke. Era berean, errepideen arloko eskumena duen departamentuaren eta kasuan kasuko toki entitatearen arteko lankidetzaren beharra xedatzen da, zeharbideetan oinezkoen eta ibilgailuen elkarbizitza errazteko eta hartara hiriko bizi kalitatea eta bide segurtasuna hobea izan daitezen.

Zeharbideak hiri barneko bide bihurtzea aurreikusten da, eta horren ondorioz Nafarroako errepide saretik atera eta Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak dagokion toki entitatearen esku uztea, titularitatea horrena izan delako hortik aurrera. Tituluaren amaieran Nafarroako zeharbideen inbentarioa arautzen da.

VI. titulua zehapen araubideari buruzkoa da. Hiru kapitulu ditu, honakoak arautzeko: bideen arloko arau-haustekak, horiei dagozkien zehapenak, eta herritarren bermetarako xedatzen den zehatzeko prozedura administratiboa.

Gainerakoak xedapen gehigarriak, iragankorrek, indargabetzailea eta azken xedapenak dira, bai eta bi eranskin ere: Nafarroako errepideen katalogoa eta Nafarroako zeharbideen zerrenda biltzen dituenak, eta besteak beste errepidearen eta haren atalen irudikapen grafikoa biltzen duena, babes eremuak, eraikinen lerroa eta publizitatea galarazita dagoen eremua barne, betiere foru lege honetan ezarritako errepide mota desberdinen arabera bereizirik.

I. TITULUA

Xedapen orokorrak

1. artikulua. Xedea.

Foru lege honen xedea Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren bideen jabari publikoa arautzea da, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 49. artikuluko 1. idatz-zatiko f) letran eta 3. idatz-zatian xedatutakoaren babesean.

2. artikulua. Bideen jabari publikoa.

Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren bideen jabari publikoa hauexek osatzen dute, foru lege honetan araututako baldintza eta kasuetan:

a) Haren titularitateko errepideak.

b) Errepideetako eremu funtzionalak eta zerbitzukoak, bai eta horietan dauden eraikinak eta instalazioak.

c) Haren titularitateko errepideen eta hauen eremu funtzionalen eta zerbitzuen alboko jabari publikoko eremua.

3. artikulua. Nafarroako errepide sarea.

Nafarroako Foru Komunitateko administrazioa da Nafarroako errepide sarearen titularra. Sare hori Foru Komunitateko lurraldean barna iragaten diren eta Nafarroako errepideen katalogoan dauden errepideek osatzen dute. Gauzak horrela, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioa da bideen zerbitzu publikoaren arduraduna, bai eta foru lege honen bidez aitortzen zaizkion eskumeneren eta prerrogatibaren erabilera egokiarena ere.

4. artikulua. Nafarroako errepideen katalogoa.

1. Nafarroako errepideen katalogoa da Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren titularitateko Nafarroako errepideen sareko errepideak identifikatu eta haien inbentarioa egiteko tresna publikoa.

2. Katalogoan honakoak jasoko dira: errepideen sailkapen funtzionala, identifikazioa, izena, jatorria, destinoa eta luzera, bai eta haien adierazpen grafikoa errepideen mapa ofizialean.

3. Nafarroako Errepideen Katalogoa errepideen arloko eskumena duen departamentuko kontseilariaren foru agindu bidez onetsi eta gaurkotuko da, errepideak edo errepide tarteak eransteko nahiz kentzeko, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren ondareari buruzko araudian aurreikusitako tramitazioa bete ondoren, beharrezkoa bada.

4. Nafarroako Errepideen katalogoa gutxienez urtean behin gaurkotuko da; ondoren, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta errepideen mapa ofiziala ere plazaratuko da.

5. artikulua. Errepideen kontzeptua.

1. Errepideak nagusiki ibilgailuen zirkulaziorako proiektatu eta eraikitako bideak dira, jabari eta erabilera publikokoak.

2. Foru lege honen ondorioetarako, honako hauek ez dira Nafarroako errepide sarekoak:

a) Abelbideak.

b) Soro eta basoetako bideak.

c) Toki entitateen, beste entitate publikoen edo partikularren titularitateko bideak, kaleak eta errepideak.

d) Jabeek eraikitako zerbitzu bideak eta gainerrako bideak, titularren jarduera berariazkoen osagai laguntzaileak edo osagarriak izan daitezen.

6. artikulua. Errepide motak.

1. Errepideen sailkapena hauexek dira: autobideak, autobiak, bide bikoiztuak, prestazio handiko errepideak eta errepide arruntak.

2. Autobideak soilik ibilgailuen zirkulaziorako bereziki proiektatu eta eraiki diren errepideak dira, izaera horri dagozkion seinaleak dituztenak eta ondoko ezaugarri hauek ere:

a) Galtzada desberdinak dituzte, zirkulazioaren norabide bakoitzeko bat, zirkulaziorako ez den lur zerrenda batek bereziak, salbu eta zati berezietan edo aldi baterako.

b) Ez dute sestra bereko gurutzagunerik beste komunikazio bide batekin edo bide zortasun batekin, ezta oinezkoen pasabideekin, bidegorriekin, trenbideekin edo bestelako azpiegiturekin ere.

c) Ondasun mugakideek ez dute sarbide zuzenik bertara.

d) Bi aldeetan hesiturik daude, luzera osoan.

e) Azpiegiturara sartzeko kontrola dute.

Mota honetan bidesaririk gabeko autobide tarteak sarturik daude.

3. Autobiak izaera horrekin bereziki proiektatu, eraiki eta seinalatutako errepideak dira, ezaugarri hauek betetzen dituztenak:

a) Galtzada desberdinak dituzte norabide bakoitzeko, luzeran ezarritako elementu fisikoen bidez edo zirkulaziorako ez den lur zerrenda batez bereziak, salbu eta tarte berezietan edo aldi baterako.

b) Ez dute sestra bereko bidegurutzerik beste komunikazio bide batekin edo bide zortasun batekin, ezta oinezkoen pasabideekin, bidegorriekin, trenbideekin edo bestelako azpiegiturekin.

c) Ondasun mugakideek sarbide mugatua dute bertara.

d) Bi aldeetan hesiturik daude, luzera osoan.

4. Bide bikoiztuak ondoko baldintzak betetzen dituzten errepideak dira, gehienetan hiri barnekoak:

a) Galtzada desberdinak dituzte norabide bakoitzeko, hiri-erdibitzaile batez, zirkulaziorako ez den lur zerrenda batez edo luzeran ezarritako elementu fisikoez bereziak, salbu eta tarte berezietan edo aldi baterako.

b) Elkarguneak gehien bat sestra berekoak dira, biribilgune itxurakoak.

c) Sestra bereko bidegurutzeak izan ahal dituzte, oinezkoentzako pasabideekin edo bidegorriekin, salbu eta bide segurtasuneko arrazoiengatik sestra desberdineko bidegurutzeak justifikaturik daudenean.

d) Ondasun mugakideek sarbide mugatua dute bertara.

e) Luzetarako hesirik gabe, tarte berezietan salbu.

f) Alboetan hiri integrazioko elementuak izan ditzake.

5. Prestazio handiko errepideak ezaugarri hauek dituztenak dira:

a) Zirkulazio norabide bikoitza galtzada bakarrean; trafikoaren bi norabideak bereizteko elementuak paratu daitezke.

b) Trazaduraren luzeraren zati nabarmen batean hirugarren erreia dute, aurreratzeak errazteko; laugarren erreia ere izan dezakete goitik beherako malda handietan, ibilgailu astunentzat.

c) Beste errepideekiko elkarguneak sestra desberdineko lotuneen bidez eginen dira, ahal den neurrian.

d) Ondasun mugakideetatik zuzeneko sarbideak mugaturik egonen dira hein batean.

e) Luzetarako hesirik gabe, tarte berezietan salbu.

6. Errepide arruntak honako ezaugarri hauek betetzen dituztenak dira:

a) Zirkulazio norabide bikoitza galtzada bakarrean.

b) Beste errepide arruntekiko elkarguneak sestra berean izanen dira, ahal dela.

c) Ondasun mugakideetatik sarbideak ez daude mugaturik, baina bide segurtasunari eta errepideen diseinuari buruzko araudian ezarritakoa bete beharko da.

d) Ez dago luzetarako hesirik.

Hauxe da errepide arrunten sailkapena, haien ezaugarri funtzionalen arabera: interes orokorreko errepideak, Foru Komunitatearen interesekoak eta tokikoak.

6.1. Interes orokorreko errepideak autonomia erkidegoen arteko edo nazioarteko ibilbideak osatzen dituztenak dira, trafiko bolumen nabarmenarekin.

6.2. Foru Komunitatearen intereseko errepideak interes orokorrekoak izan gabe Nafarroako Foru Komunitateko lurraldea barnetik egituratzen dutenak dira, bai eta mugakide diren autonomia erkidegoekiko edo erregioekiko lotune direnak ere.

6.3. Tokiko errepideak komunikazioen sare kapilarra osatzen dutenak dira, maila altuagoko errepideen eta populazioguneetako sarbideen arteko loturarako bide emanez, baita Nafarroako Foru Komunitatearen mugakide diren lurraldeekin egituratzen duten loturarako ere.

7. Nafarroako edukiera handiko errepideen sarea autobideek, autobiek, errepide bikoiztuek eta prestazio handiko errepideek osatzen dute.

7. artikulua. Jarduketarako irizpide orokorrak.

Errepideak planifikatu, proiektatu, eraiki, zaindu eta ustiatzeko honako jarduketa irizpide orokor hauek hartuko dira aintzat:

a) Zerbitzuaren funtzionaltasuna, erosotasuna eta kalitatea erabiltzailearentzat, Nafarroako errepide sareak zerbitzu publikoaren eginkizuna bete dezan eta behar sozial eta ekonomikoekin bat erabil dadin.

b) Bide segurtasuna. Bide segurtasunaren hobekuntzak Nafarroako errepide sarean egiten diren jarduketa guztietan izan beharko du tokia.

c) Lurralderako irisgarritasuna. Populazioaren irisgarritasuna erraztea jarduketarako oinarritzko irizpidea da, Nafarroako Foru Komunitatean hiri eta lurralde garapen orekatua lortzeko helburuarekin.

d) Ingurumen integrazioa. Errepideen arloko jarduketek modu berezian hartuko dute kontuan ingurumen eta kultura ondarearen errespetua eta zainketa.

e) Teknologia berrien aplikazioa. Nafarroako errepide sarean egiten diren jarduketetan, informazio eta komunikazioaren teknologietan gertatu diren aurrerapenak kontuan hartuko dira, erabiltzaileei ematen zaien zerbitzuaren kalitatea eta bide segurtasuna etengabe hobetzeari begira.

8. artikulua. Errepidearen zatiak: zelaigunea, galtzada eta bide-bazterrak.

1. Errepide baten zelaigunea galtzadatik kanpo eta luzetara dauden bi lerroren artean dagoen azalera da, jabari publikokoa. Zelaigunearen kanpoko lerroa, errepidearen bazter bakoitzean, lur-erazketaren ezponda edo lubeta eta berezko lurra elkartzen diren gunea da. Lur-erazketaren babes-arekak edo lubeta-oinarrikoak baldin

badaude, zelaigunearen kanpoko lerroa areka hori mugatzen duen kanpoko lerroa izanen da.

Berezko lurra errepidearen sestra berean dagoenean, zelaigunearen kanpoko lerroa areka hori mugatzen duen kanpoko lerroa izanen da. Arekarik ez badago, zelaigunearen kanpoko lerroa galtzadaren erriak mugatzen dituen kanpoko lerroetik metro batera egonen da, edo bide-bazterra mugatzen duen kanpoko lerroan, bide-bazterrik baldin badago.

Fabrika-obretan, zelaigunearen kanpoko lerroa kanpoko paramentuak edo haien zimentazioak eta berezko lurra elkartzen diren gunek ezarriko du.

Tunelak, zubiak, bidezubiak, egiturak edo antzeko lanak dauden errepide tartetean, zelaigunearen kanpoko lerroa lanak lurrean mugatzen dituen kanpoko lerroaren proiektzio ortogonalaren izanen da.

Salbuespen gisa, jabari publikoaren azalera egituren euskarrietako zimentuek hartutako lurretara mugatu ahalko da, inguruko hiru metroko lurrerrenda bat gehituta. Edozein kasutan, egituren edo antzeko obren euskarriek eta zimentazioek hartutako lurra jabari publikokoa izanen da. Ukututako gainerako lurra pertsonentzako eta ibilgailuentzako bide zortasunaren menpe geldituko da, beharrezkoa baita errepidearen funtzionamendu eta zainketa egokia ziurtatzeko.

2. Galtzada errepideko zati zolatua da, ibilgailuen zirkulaziorako erabiltzen dena.

3. Bide-bazterra galtzadaren ondoan, luzetara, dagoen zerrenda zolatua da, ibilgailuek erabiltzen ez dutena, salbuespeneko kasuetan ez bada. Errepide batzuek bide-bazterrak dituzte eta beste batzuek ez.

9. artikulua. Errepideetako eremu funtzionalak eta zerbitzukoak.

1. Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak eremu funtzionalak eta zerbitzukoak ezarri ahal ditu, bideen jabari publikoan sartuak, beharrezkoak iritziz gero errepideen zainketa eta ustiaketarako, erabiltzaileentzako erosotasuna eta arreta egoiak izateko eta Nafarroako errepide sareko zirkulazioaren funtzionamendu onerako.

2. Eremu horietan zainketa eta ustiaketa zentro operatiboak paratu ahalko dira, ibilgailuak ikuskatu eta pisatzeko tokiak, autobus geltokiak, erregaiak hornitzeko instalazioak, atsedenguneak eta antzeko zerbitzuak.

Eremu funtzional eta zerbitzukoak hartuko dira, halaber, Nafarroako Foru Komunitateko garraio eta komunikazioen sistema orokorra anto-

latu, hobetu edo erregularizatzeko lurrek edo instalazioek osatzen dituzten azpiegitura osagarriak, hala nola, geltokiak, zentroak, trukerako gunek, aparkaleku gomendatuak eta antzeko beste edozein.

3. Eremu funtzionalak eta zerbitzukoak mugatzeko irizpideak aurreko artikuluan errepideetarako erabili diren berberak izanen dira.

II. TITULUA

Planifikazioa, proiektzioa eta eraikuntza

I. KAPITULUA

Nafarroako errepideen plan zuzendaria

10. artikulua. Kontzeptua.

1. Nafarroako errepideen plan zuzendaria da Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren esparruan errepideak planifikatzeko tresna tekniko eta juridikoa.

2. Nafarroako errepideen plan zuzendariak, Nafarroako Parlamentuak onetsi ondoren, lurralde antolamenduko tresna izaera du, lurraldearen antolamendu eta hirigintzari buruzko foru legerian xedatutakoari jarraikiz.

11. artikulua. Izaera.

Nafarroako errepideen plan zuzendaria hirigintza arloko antolamenduari nagusituko zaio bideen eta komunikazioen sistemari dagokion alderdian. Ondorio horietarako, loteslea izanen da toki entitateentzat, erakunde publikoentzat eta beste administrazio batzuentzat, eta hauek bete egin beharko dituzte bide antolamenduaren arloan ematen dituen xedapenak.

12. artikulua. Edukia.

Nafarroako errepideen plan zuzendaria honako zehaztapen hauek kontuan hartuz egingen da:

a) Helburuak finkatzea eta haien arteko lehen-tasunak ezartzea.

b) Bide sistema osatzen duten elementuen programazio, eraikuntza eta zainketari aplikatzekoak zaizkien irizpide orokorrak ezartzea.

c) Nafarroako errepide sarearen egoera deskribatu eta aztertzea, bai eta horien eremu funtzional eta zerbitzukoena ere, alderdi hauen inguruan bereziki: egoera funtzionala eta zainketakoa, bide segurtasuna, mugikortasun iraunkorra, zerbitzuaren kalitatea, garraio sistema orokorra, lurralde eredia eta aldagai sozioekonomiko nagusiak.

d) Sareko errepede tartekak foru lege honen 6. artikuluan aurreikusitako errepede mota desberdinei atxikitzeko irizpideak.

e) Plana gauzatzeko behar diren baliabide ekonomikoak, finantzarioak eta antolaketakoak zehaztea.

f) Planean jasotako jarduketek ingurumenaren duten eraginaren azterketa orokorra.

g) Plana garatu eta kudeatzeko prozedurak zehaztea.

h) Plana berrikusteko irizpideak eta prozedurak zehaztea.

13. artikulua. Agiriak.

Nafarroako errepedeen plan zuzendaria honako agiri hauek osatuko dute:

a) Txostena.

b) Aurreikusitako jarduketak.

c) Dokumentazio grafikoa eta planoak.

d) Baliabide ekonomiko eta finantzarioak aztertu, zehaztu eta programatzea.

e) Plana garatzeko jarduketa programa.

f) Ingurumen ondorioen azterlana.

14. artikulua. Egiteko prozedura.

Nafarroako errepedeen plan zuzendariaren prestaketari errepede plan zuzendari indardunaren mugaeguna baino lehen ekingo zaio, eta tramitatu eta onesteko prozedura hauxe izanen da:

1. Errepedeen arloko eskumenak dituen departamentuak Nafarroako errepedeen plan zuzendariaren prestaketa onetsiko du, eta edukiaren helburuak eta jarraibideak ezarriko.

2. Plan zuzendari berriaren proposamena bilzen duen dokumentua behin prestaturik, errepedeen arloko eskumenak dituen departamentuak ekonomia arloko eskumenak dituen departamentura igorriko dio plan zuzendaria, honek txostena eman dezan.

3. Txosten hori eman ondoren, errepedeen arloko eskumenak dituen departamentuak ingurumeneko eskumenak dituen departamentura igorriko du plana, ingurumenaren ikuspuntutik egokia dela egiazta dezan.

4. Ingurumen aldetiko egokitasuna egiaztaturik, errepedeen arloko eskumenak dituen departamentuak Nafarroako Gobernuaren esku utziko du plan zuzendaria, honek aintzat har dezan.

5. Aintzat hartua izan ondoren, errepedeen arloko eskumenak dituen departamentuak jendaurrean jarriko du plan zuzendaria, hilabetez, eta entzutea emanen die ukitutako toki entitateei, hilabetez ere bai.

6. Errepedeen arloko eskumenak dituen departamentuak ingurumenaren arloko eskumenak dituen departamentura igorriko du plan zuzendaria, jendaurreko eta entzutea emateko epeetan aurrekizutako alegazioei eta oharrei buruzko txostenarekin batera, departamentu horrek ingurumen ondorioei buruzko deklarazioa tramita dezan.

7. Ingurumen ondorioen deklarazioa egin ondoren, errepedeen arloko eskumenak dituen departamentuak plan zuzendariaren behin betiko dokumentua prestatuko du, aurreko prozedurak zehaztapenak barne, eta Nafarroako Gobernuari proposatuko dio aintzat har dezan plan zuzendaria, Nafarroako Parlamentura igortzeko.

8. Nafarroako Parlamentuak eztabaidatu eta onetsiko du Nafarroako errepedeen plan zuzendaria. Parlamentuak onetsi ondoren, errepedeen arloko eskumenak dituen departamentuak argitaratu egingen du.

15. artikulua. Indarraldia eta berrikustea.

1. Nafarroako errepedeen plan zuzendariak zortzi urteko indarraldia izanen du gehienez, eta planean bertan aurreikusitako kasuetan berrikusi ahalko da.

2. Plana berrikusteko prozedura hura onesteko ezarritakoaren arabera izanen da.

3. Nafarroako Parlamentuak, Nafarroako Gobernuak proposaturik eta aurreko artikuluan aurreikusitako tramitazioa bete ondoren, jarduketa bereziak erantsi ahalko dizkio errepede plan zuzendari indardunari, salbuespenez.

II. KAPITULUA

Azterlanak eta proiektuak

16. artikulua. Dokumentu teknikoak.

1. Kapitulu honetan adierazitakoari jarraikiz, errepede tarte berriak egiteko lanetarako agiri teknikoak hauexek izanen dira: azterlan informatiboak eta eraikitze proiektuak.

2. Honako obrak ez dira errepede tarte berrizat hartuko: trazadura egokitzea, plataforma zabaltea, bide segurtasuneko jarduketak, zoru hobekuntzak, zainketa lanak eta, oro har, lehendik dauden errepedeen funtzionaltasunaren edo trazaduraren aldaketa garrantzitsurik ez dakarten jarduketa guztiak. Kasu horietan, lan horien gauzatzeko teknika zuzenekoak izan ahalko da, azterlan

informatiboren beharrik gabe, kasuko eraikitze proiektuaren bidez edo errepideen zainketako lanen barruan. Jendaurreko tramitea ere ez da aginduzkoa izanen, salbu eta desjabetzeetarako beharrezkoa denean.

17. artikulua. Azterlan informatiboa.

1. Errepide tarte berriak egiteko lanetarako azterlan informatiboa egin ahalko da, errepideen arloko eskumenak dituen departamentuak hala erabakitzen duenean jarduketaren garrantzi edo konplexutasun teknikoa dela-eta edo lurraldean duen eragin nabarmenagatik.

2. Azterlan informatiboa jarduketa jakin baten soluzioak eta alternatibak ezartzeko behar diren datuak bildu eta aztertzean datza; azterlanak soluzio eta alternatiba horien balorazioa eta hierarkia ezarriko ditu, ingurumenerako aurreikus daitezkeen ondorioak barne, eta haien azterketa eginen du, irizpide sorta bat erabiliz.

3. Hauxe jasoko du azterlan informatiboak:

a) Azterlanaren xedea eta proposatutako soluzioaren kontzeptu orokorra justifikatzen duten inguruabarren azalpena.

b) Trazadurarako aztertutako alternatiba guztien definizio geometriko eta funtzionala, dagokion eskalan, lotuneen eta elkarguneen kokapena eta motak ere adierazirik.

c) Trafikoari buruzko azterlan bat.

d) Bide segurtasunari buruzko azterlan bat.

e) Aukera guztien ingurumen ondorioen azterlana, ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio prozedura aginduzkoa bada. Aginduzkoa ez bada, berriz, alternatiben azterketa ingurumenaren ikuspuntutik, eta beharrezkoak diren zuzenketa eta babes neurriak.

f) Lurralde eta hirigintza planeamenduan dituen ukipenak.

g) Alternatiba bakoitzaren balorazio ekonomikoa.

h) Aukeretako bakoitzaren alde on eta txarren eta kostuen azterketa eta neurketa, bai eta funtzionaltasunean, segurtasunean, ingurumenean, lurraldearen antolamenduan eta hirigintzan duten eragina ere.

i) Balorazio onena duen alternatiba identifikatzea, irizpide anitzeko azterketa egin ondoren.

18. artikulua. Eraikitze proiektua.

1. Eraikitze proiektua jarduketa definitzen duen agiri tekniko eta ekonomikoa da, obrak burutzea ahalbidetzen duten xehetasun guztiak emanez.

2. Kontratu publikoei buruzko araudian eta aplikatzekoa zaion araudi sektorialean ezarritakoa galarazi gabe, eraikitze proiektuetako edukia errepideen arloko eskumenak dituen departamentuak ezarriko du kasu bakoitzean.

19. artikulua. Azterlanak eta proiektuak prestatzea.

1. Errepideen arloko eskumenak dituen departamentuak prestatuko ditu azterlanak eta proiektuak, bere langileak eta bitartekoak erabiliz edo hirugarrenak kontratatuz. Azterlan eta proiektuen zuzendaritza eta gainbegiratzea, betiere, behar besteko gaitasun teknikoa duten langileek eginen dute, errepideen eskumenak dituzten departamentuok.

2. Errepideen arloko eskumenak dituen departamentuak hitzarmenak edo gomendioak egin ahalko ditu beste administrazio, sozietate edo ente publiko, erakunde edo partikular batzuekin azterlanak eta proiektuak prestatzeko, beretzat gorderik horiek gainbegiratu eta onestea.

3. Administrazioaren bitartekoekin egin beharreko azterlanak edo proiektuak prestatzeko lanak hasteko aginduak berekin ekarriko du lan teknikoak betetzeko behar diren lurren okupazioa. Azterlanak edo proiektuak prestatzea hirugarrenei esleituz gero, ondorioak berberak izanen dira, eta halaber lan horiek egiteko hitzarmenaren edo gomendioaren formalizazioak.

20. artikulua. Azterlanak eta proiektuak onesteko prozedura. Ondorioak.

1. Beharrezkoa den kasuetan azterlan informatiboa prestatu ondoren, ukitutako toki entitateei eta lurraldearen antolamenduaren eta ingurumenaren arloko eskumenak dituen departamentuari igorriko zaie, jarduketa udalez gaindiko proiektu sektorial gisa tramita dezaten, eta aldi berean departamentu horrek ingurumenaren gaineko eraginari buruzko ebaluazioa egin dezan, aginduzkoa denean. Prozedura horietan aurreikusitako jendaurreko tramitean, alegazioak ingurumeneko alderdiei buruzkoak izan daitezke, baita trazaduraren kontzeptu orokorrari eta aztertutako alternatibei buruzkoak ere.

Azterlan informatiboa udalez gaindiko proiektu sektorial deklaratuak azterlan informatibo hori eta hautatutako trazadura alternatiboa onestea ekarri-

ko du, egindako tramitazioan erantsi diren lurralde eta ingurumen zehaztapenak barne.

2. Eraikitze proiektua jendaurrean jarri behar badu, errepideen arloko eskumenak dituen departamentuak behin-behineko eta behin betiko onesprenak eman beharko dizkio. 16.2 artikuluan aurreikusitako kasuetan, beharrezkoa ez denean, behin betiko onesprena baizik ez da eman beharko.

3. Eraikitze proiektu bati behin-behineko onesprena emanda, jendaurrean jarriko da hilabetez, bai proiektuaren eduki teknikoa bai desjabetzearen ondorioetarako okupatu beharreko lurrei dago-kiena. Aldi berean, entzutea emanen zaie ukitutako toki entitateei, beren eskumenen esparruan adierazi dezaten eraikitze proiektua bat datorren udalez gaindiko proiektu sektorialak ezarritako zehaztapenekin, horrelakorik onetsi bada.

Jendaurrean jarriko den eta entzutea ematearen xede izanen den dokumentazioak eduki hau izanen du, gutxienez ere:

a) Hartutako soluzioa deskribatu eta justifikatzen duen txostena, halako moduan non argi eta zehatz geratuko baita proiektatutako trazadura.

b) Proiektatutako lanak oinean, luzerako profilean eta zeharkako sekzioen arabera eskala egokian irudikatzen dituzten planoak, bai eta ukitutako zerbitzuak berrezartzeari buruzkoak ere.

c) Lurzatiaren planoak, bertan adierazirik okupatu beharreko lurrak, barne hartuta maileguan hartutakoak, hondakindegia eta obrak gauzatzeko behar diren instalazio laguntzaileen kokapena.

d) Eranskinak, hauexek jasotzen dituztenak: trazaduraren datuak, aukeratutako ezaugarriak, ukitutako zortasunen eta zerbitzuen berrezarpena, eta ukitutako ondasun eta eskubideen banakako zerrenda zehaztua, interesatuen izenekin, ondasun eta eskubideen desjabetzea tramitzatzeko bide eman dezan.

4. Jendaurreko epea amaiturik, errepideen arloko eskumenak dituen departamentuak aurkeztutako alegazioak aztertu eta arrazoiak emanaz erantzun beharko du, eta, eraikitze proiektua behin betikoz onartu, bidezkoa bada, jendaurreko epeak eraginen dituen zehaztapenak erantsirik. Egokia den kasuetan, eraikitze proiektuaren behin betiko onespenean adierazi beharko da udalez gaindiko proiektu sektorialean eta jarduketaren ingurumenaren gaineko deklarazioan ezarritako zehaztapenen menpe dagoela, halakorik onetsi baldin bada.

5. Jendaurrean jarritako proiektuen behin-behineko eta behin betiko onesprenak Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta prentsan argitaratuko dira,

Nafarroan argitaratzen diren egunkari salduen eta batean gutxienez. Era berean, Nafarroako Gobernuaren web atarian ere argitaratuko dira, aplikatzekoa den araudian hala ezarririk dagoen kasuetan. Ukitutako toki entitateei eta jendaurreko tramitean esku hartu dutenei jakinaraziko zaie.

Jendaurreko tramitearen ondorioz proiektuak nabarmen aldatuz gero ondasunen edo eskubideen titularren gaineko ukipena, proiektua onesten duen ebazpena banaka jakinarazi beharko zaie titular horiei, jendaurreko tramitean alegaziorik aurkeztu ez badute ere.

6. Eraikitze proiektuen behin betiko onesprenak berekin ekarriko du erabilera publikoaren deklarazioa eta ondasun okupatu eta eskubideak erosi beharra, desjabetze, aldi baterako okupatu edo bide zortasunak ezarri edo aldatzearen ondorioetarako. Horretarako, ukitutako ondasun eta eskubideak xedetasunez deskribatuko dira, eta interesatuak beren izenekin izendatuko dira.

Erabilera publikoaren deklarazioak eta okupazioaren beharrak proiektuaren zuinetan eta aurrerago onets daitezkeen aldaketetan sartutako ondasun eta eskubideei ere eraginen diete. Aldaketetan ukitutako ondasunak eta eskubideak ere azalduko dira.

7. Jarduketa udalez gaindiko proiektu sektoriala izendatzeko deklarazioa edo eraikitze proiektuaren behin betiko onesprena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren, jabetzari eta beste eskubide batzuen titularitateari foru lege honen bidez ezarritako mugek kasuan kasuko jarduketak ukitzen dituen lurretan izanen dituzte ondorioak.

8. Errepideak eraikitze proiektuen behin betiko onesprenak berekin ekarriko du toki entitateentzat hirigintza planeamendua egokitu beharra, hura berrikusi edo aldatzen dutenean, proiektuetan jasotako zehaztapenak erantsiz. Egokitzapena egin bitartean, behin betikoz onetsitako eraikitze proiektuen edukiak eta ondorioek lehentasuna izanen dute tokian tokiko hirigintza planeamenduaren gainetik.

21. artikulua. Ingurumen aldetiko egokitasuna.

Errepideen proiektuek ingurumenaren arloan araudiak aurreikusitako ebaluazio eta baimenak eduki beharko dituzte.

III. KAPITULUA Hiri- eta bide-planeamenduen arteko koordinazioa

22. artikulua. Administrazioen arteko koordinazioa.

1. Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak errepideen arloan beteko dituen jarduketak

estatuko, mugakide diren lurraldeetako eta toki entitateetako administrazio orokorrarekin koordinatuko dira, komunikazioen sistemaren batasuna bermatzeko eta ukitutako interes publikoak bateragarri egiteko, horretarako lankidetzazko prozedurak erabiliz.

2. Foru lege honen aplikazioaren esparruan, Foru Komunitateko administrazioak eta Nafarroako toki entitateek betebeharrak izan behar dituzte: lurraldearen eremuan eta antolamenduan eragina duten jarduketak koordinatzea bien artean, eta aurreikusitako ekimen eta proiektuei buruzko informazioa eta laguntza ematea elkarri.

23. artikulua. Hirigintza planeamenduarekiko koordinazioa.

1. Hirigintza planeamendua egin, aldatu edo berrikusten denean edo hirigintza jarduketaren bat tramitatzen denean, Nafarroako errepublikaren sareari edo errepublikaren plan zuzendariari eragiten badiu, errepublikaren arloko eskumenak dituen departamentuak txostena eman beharko du, hirigintzako araudian ezarritako jarraiz.

2. Hirigintza planeamendua egin, aldatu edo berrikusten denean:

a) Planeamendu horretan eragina duten eta Nafarroako errepublikaren plan zuzendariari aurreikusirik dauden jarduketak erantsi beharko zaizkio, azterlan informatiboaren edo eraikitze proiektuaren mailan gauzatu eta onetsirik badaude.

b) Errepublikaren plan zuzendariari aurreikusitako jarduketak badira, baina inongo onespenezko administrazioaren xede izan gabeak, bideragarritasun teknikoak duten trazadurei dagozkien espazio erreserbak sartu beharko dira hirigintza planeamenduan. Bidezkoa bada, sustatzaileak errepublikaren plan zuzendariari dagokion jarduketaren azterlan informatiboak tramitatu ahalko du, foru lege honetan aurreikusitako prozedurarekin, azterlan informatibo hori behin onetsirik haren zehaztapenak gehitu dakizkion hirigintza planeamenduari.

24. artikulua. Interes orokorreko jarduketak.

1. Errepublikaren eraiki edo zaintzeko Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak sustatzen dituen lanek, horiek betetzeko behar diren jarduketak guztiak barne, bai eta eremu funtzioetan eta zerbitzukoetan eta babes eremuetan eginkoak ere, interes orokorreko jarduketak baitira, ez dute lizentzia beharrik, ez eta toki entitateen beste ezein prebentzio ekintzarik ere.

2. Errepublikaren arloko eskumenak dituen departamentuak toki entitateei jakinaraziko dizkie beren udalerririk ukitzen dituzten lanak noiz hasiko diren,

lan horiek betetzeko epea eta toki entitatearen interesekoak izan daitezkeen beste alderdi batzuk, eta eraikitze proiektuaren kopia bat edo egin beharreko lanak behar bezala azaltzen dituen dokumentazio teknikoarena igorriko die. Edozein kasutan, lanek ukitzen duten udalerririk toki entitatearekiko lankidetzazko erraztuko da, ukipenak ahal diren txikiak izan daitezkeen eta herritarrek informazio egokia jaso dezaten.

III. TITULUA

Finantzaketa eta ustiaketa

I. KAPITULUA

Finantzaketa

25. artikulua. Jarduketaren finantzaketa.

1. Foru lege honetan araututako errepublikaren proiektuak, eraiki, hobetu eta ustiatzeko eta, oro har, bertan eginko jarduketak guztiak ekarritako inbertsio eta gastuen finantzaketa bide hauetako batez edo batzuez egin ahalko da:

a) Xede horrekin Nafarroako aurrekontu orokorrean ezartzen diren diru kopuruak.

b) Beste administrazio publiko, sozietate edo ente publiko batzuekin edo foru, nazio, Europar Batasuneko edo nazioarteko erakundeekin lankidetzazko prozedurak ezarriz.

c) Partikularrekin lankidetzazko prozedurak ezarriz.

d) Errepublikaren zeharkako kudeaketa araubidean eraiki edo/eta ustiatzeko emakidatze bidez; kasu horretan, sozietate emakidatze-hartzaileen baliabide berekiekin, horiek mugitzen dituzten besteren kapitalekin eta administrazioak eman dezakeen beste edozein ekarpen ekonomikorekin finantzatzeko dira.

e) Errepublikaren erabiltzeko bidesariak edo kanoak.

f) Kontribuzio bereziak ezartzea.

g) Foru lege honetan eta hirigintza, ondare eta kontratazio administrazioaren arloetako araudian aurreikusitako bideak.

2. Erabilerarako bidesaria edo kanona ordaindu beharra ezarria duten errepublikaren tarteetan, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak konpentsazio prozedurak jarri ahalko ditu erabiltzaileak zuzenean ordaintzen duena murrizteko edo kentzeko.

26. artikulua. Errepideetako jarduketak finantzatzeko lankidetzak-sistemak.

1. Nafarroako errepide sareko errepideetan edo bertan sartu behar diren errepide tarte berrietan eragina duten jarduketak gauzatu eta finantzatzeko, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioa lankidetzan aritu ahalko da beste administrazio publiko, sozietate edo ente publiko batzuekin edo beste foru, nazio, Europar Batasuneko edo nazioarteko erakunde batzuekin, betiere modu hauetako batean:

- a) Diru ekarpenak.
- b) Karga eta zergarik gabeko lurren ekarpena.
- c) Errepidean elementu funtzionalak edo osagarriak paratzea, besteen kontu edo baliabide berekiekin.
- d) Errepide tarte batzuk edo elementu funtzionalak egin, handitu, zaindu edo mantentzeko lanak osotara edo hein batean bere kargu hartze-ko konpromisoa.

e) Azterlanak eta proiektuak egin.

2. Lankidetzak lurralde edo hirigintza garapene-ko ekimen baten barnean dagoenean, sustatzaileak ordaindu eta, bidezkoa denean, gauzatu behar-ko ditu egin asmo den jarduketak Nafarroako errepide sarearekin lotzeko azpiegiturak, bai eta sustatutako jarduketak sare horren erabileran eka-rritako gehikuntzaren ondorioz behar diren handi-tzeak ere.

3. Lankidetzak hitzarmen batean zehaztuko da, alde guztiek bere gain hartutako betebeharrak ere jasota. Errepideen arloko eskumenak dituen departamentuak ezarriko du artikuluko honetako jar-duketatik zein sartu daitezkeen, ondorio guztie-kin, Nafarroako errepideen sareko errepide tarte gisa.

27. artikulua. Nafarroako errepide sareak ustia-tzeak sortutako baliabideak.

Foru lege honetan araututako errepideek beste diru baliabide batzuk sortu ahal dituzte Nafarroako Foru Komunitateko administrazioarentzat, modu hauetan:

a) Kanon bat ezarriz bideen jabari publikoak ustiatu edo erabiltzeagatik.

b) Bideen jabari publikoari atxikitako ondasunak besterentzea, Nafarroako errepide sarearen-tzat beharrezkoak ez direnean.

28. artikulua. Subrogazioa desjabetzeen kasu-etan.

Nafarroako Foru Komunitateko administrazioa desjabetutako jabearen jarrera juridikoan subroga-tuko da lurri dagokien hirigintza aprobetxamendu-rako duen eskubidearen ondorioetarako.

II. KAPITULUA Ustiaketa

29. artikulua. Kontzeptua eta edukia.

1. Bideen jabari publikoaren ustiaketa zaintze eta mantentze lanak sarturik daude, bai eta horien babesa, erabilera hobea eta aprobetxamendua hleburu dituztenak ere.

2. Zaintze eta mantentze lanetan bideen jabari publikoko ondasunen egoera ona babesteko behar diren jarduerak daude sarturik.

3. Babes ekintzen xedea bideen jabari publiko-ari kaltea edo galera ekartzen dioten jarduerak sai-hestea da, eta halaber Nafarroako errepide sarean funtzionaltasuna eta bide segurtasuna.

4. Errepideen erabilera eta aprobetxamendu egokia hauxe dela ulertzen da: errepideak segur-tasun eta erosotasun baldintza onenetan erabil-tzen laguntzea xede duten jarduketak. Ondorio horietarako, honakoak hartzen ditu bere baitan: informazio eta seinalizazioaren arloetako esku-hartzeak, babes eremuetako sarbideen eta erabi-leren antolaketa, eta ingurumen arloko lehengora-tze edo babes jarduketak, beharrezkoak badira edo araudi sektorialean ezarririk badaude.

30. artikulua. Ustiatzeko moduak.

1. Nafarroako Foru Komunitateko administrazio-ak, oro har, zuzenean kudeatu eta ustiatuko du bideen jabari publikoa, zeinaren erabilera doakoa izanen baita erabiltzaileentzat, bidesaria ordaindu beharra ezarri ezean. Era berean, kanon bat ezarri ahalko da erabilera berezi edo pribatiboetarako.

2. Nafarroako Foru Komunitateko administra-zioaren bideen jabari publikoa araudi sektorialean zeharkako kudeaketarako aurreikusitako edozein sistemaren bidez ere ustiatu ahalko da.

3. Nafarroako Foru Komunitateko administra-zioak agentziak, sozietate publikoak, partzuergoak eta erakunde publikoak sortu ahalko ditu Nafarroa-ko errepide sarean sartutako errepideak eta horien eremu funtzionalak eta zerbitzukoak eraiki, zaindu eta ustiatzeko xedearekin.

31. artikulua. Zirkulazioa mugatzea.

1. Errepideen arloko eskumenak dituen depar-tamentuak, bere eskumenen esparruan, eta horre-

tarako arrazoiak izanez gero, mugak ezarri ahalko dizkio zirkulazioari edo ibilgailu mota jakin batzuei, aldi baterako nahiz modu iraunkorrean, Nafarroako errepideen sareko zenbait tartetan, sarea zaintzeko xedearekin, honelako kasuetan: eraberritze lanak gauzatzean edo aparteko egoerak, betebeharrak teknikoek edo bide segurtasunak hala eskatzen dutenean. Muga horiek trafikoaren antolamenduaren arloko eskumenak dituen departamentuari jakinarazi beharko zaizkio.

2. Errepide tarte zenbaitetan zirkulatzeko, garraio bereziek baimen osagarria beharko dute, aplikatzeko den araudi sektorialari jarraikiz, trafikoaren antolaketaren arloko eskumenak dituen departamentuak eman beharrekoa, errepideen arloko eskumenak dituen departamentuak txosten loteslea eman ondoren.

Eskatzaileak xehetasunezko azterlan bat aurkeztu beharko du, bertan justifikaturik errepidearen erabilera bereziak ez diola errepideari kalterik ekarriko, zirkulazioaren segurtasuna bermaturik egonen dela eta behar diren neurriak hartuko direla errepidearen gainerako erabiltzaileentzako eraginak ahalik eta txikiak izan daitezkeen.

Baimenean bete beharrekoak ezarriko dira, bideen jabari publikoari eragin ahal dizkieten kalte eta galerei aurre egiteko berme bat eratzeko balizko beharra barne.

32. artikulua. Aforo eta pisatze estazioak.

Errepideen edo garraioen arloko eskumenak dituen departamentuak aforo eta pisatze instalazioak paratu ahalko ditu Nafarroako errepideen sareko zenbait tokitan, kasuan kasuko errepidean ibiltzen den trafikoaren ezaugarriak ezagutu eta kontrolatzeko eta ikuskapen lanak egiteko.

IV. TITULUA

Bideen jabari publikoaren babesa eta jabetzari ezarritako mugak

I. KAPITULUA

Errepidearen babes eremuak eta eraikinen lerroa

33. artikulua. Errepidearen babes eremuak eta eraikinen lerroa ezartzea.

1. Bideen jabari publikoa babesteko eta bideen zerbitzu publikoa behar bezala emateko, errepidearen babes eremuak ezartzen dira, alboko jabari publikoko eremuak eta zortasun eremuak izenekoak, eta eraikinen lerroaren trazadura.

2. Babes eremuak eta eraikinen lerroa errepidearen ardatzarekiko horizontalean eta ortogona-

lean neurtuko dira, eta foru lege honetan xedatutakoarekin bat.

3. Galtzada, lotune eta bestelako hurbiltasuna dela-eta, bi errepideren edo gehiagoren alboko jabari publikoko eremuak eta zortasun eremuak elkar gainezkatzen direnean, foru lege honetan ezarritako moten arabera garrantzi handiena duen errepidearen jabari publikoko eremurako ezarritako araubidea nagusituko da.

4. Errepideetako hiri barneko tartetan ez da ezartzen errepidearen babes eremurik ez eta eraikinen lerrorik ere.

5. Errepideen babes eremuetan dauden lurren, eraikinen edo beste edozein ondasunen jabeak eta horietan gauzatzen diren jardueren titularrak beharturik daude garbitasun eta segurtasun baldintzak bermatzera, bideen zerbitzu publikoaren funtzionamendu egokiari eragin ez diezaioten, eta behar bezala edukitzeko lanak eta jarduketak bete beharko dituzte. Betebeharrak hori ez betetzeak sortutako kalte eta galeren erantzule izanen dira.

34. artikulua. Alboko jabari publikoko eremuaren mugaketa.

1. Alboko jabari publikoko eremuak errepidearen ondoko lurrak eta haren eremu funtzionalak eta zerbitzukoak hartzen ditu bere baitan.

2. Alboko jabari publikoko eremua bi lur zerrendak osatzen dute, errepidearen alde bakoitzean bat. Hauxe da zerrenda horien zabalera, zelaigunearen kanpoko lerrotik hasita, 8.1 artikuluan zehazten den bezala:

a) Autobideak, autobiak eta bide bikoiztuak: zortzi metro.

b) Prestazio handiko errepideak eta errepide arruntak: hiru metro.

3. Errepideen eremu funtzionaletan eta zerbitzukoetan, alboko jabari publikoko eremua osatzen duen lur zerrenda, zein errepide motatan dauden, horretarako oro har xedatutakoaren baliokidea izanen da, dagokion zelaigunearen kanpoko lerrotik neurtuta.

35. artikulua. Zortasun eremuaren mugaketa.

1. Zortasun eremua bi lur zerrendak osatzen dute, errepidearen alde bakoitzean bat; zerrenda horien zabalera hauxe da, alboko jabari publikoaren eremuaren kanpoko lerrotik neurtua:

a) Autobideak, autobiak eta bide bikoiztuak: hamazazpi metro.

b) Prestazio handiko errepideak, errepide arruntak: bost metro.

2. Errepideen eremu funtzioaletan eta zerbitzukoetan zortasun eremua bost metroko lur zerrenda batek osatuko du, alboko jabari publikoko eremuaren kanpoko lerrotik neurtua.

36. artikulua. Eraikinen lerroaren mugaketa.

1. Eraikinen lerroa errepidearen bi aldeetara dago, galtzada mugatzen duen kanpoko lerroaren parean doan trazadura batekin, eta horretatik distantzia hauetara:

a) Autobideak, autobiak eta bide bikoiztuak: berrogeita hamar metro.

b) Prestazio handiko errepideak, interes orokorreko errepideak eta Foru Komunitatearen intereseko errepideak: hogeita bost metro.

c) Tokiko errepideak: hemezortzi metro.

2. Eraikinen lerroa babes eremuen barruan baldin badago, lerro hori zortasun eremuaren kanpoko muga ezarriko da.

3. Errepideen arloko eskumenak dituen departamentuak artikulua honetan adierazitako distantziak murriztu ahalko ditu, salbuespen gisa eta arrazoiturik, betiere bermatzen badira errepideetako bazterren antolaketa, sarbideen kontrol egokia eta bide segurtasuna, errepide batean, tokia- ren ezaugarriak direla eta, ezarritako distantziak betetzerik ez dagoenean edo arrazoi teknikoek edo sozioekonomikoek komenigarria egiten dutenean.

37. artikulua. Lehendik dauden eskubideak.

1. Errepidearen babes eremuak eta eraikinen lerroa ezarri eta mugatzeak, bai eta foru lege honetan adierazitako mugek eta baimendu daitezkeen erabileretarako arautzen den araubideak ere ez dute aldatzen ukitzen dituzten lurretan lehendik dagoen jabetza egoera, ez eta horien gainean hirugarrenek dituzten eskubideen titularitatea ere. Ez dute, halaber, kalte-ordainetarako eskubiderik sortzen ukitutako lurren gaineko eskubideak dituzten titularrentzat.

2. Alboko jabari publikoko eremua mugatzeak ez dakar berekin bertan sarturiko lurrak eta gaine- rako ondasunak jabari publikoko ondasun deklaraz- tea, Nafarroako Foru Komunitateko administrazio- ak erosi arte, foru lege honetan xedatutakoari jarraikiz.

3. Instalazioak paratzeko edo errepidea eraiki edo mantentzearekin zuzeneko lotura duten jardue- ra publikoak egiteko lurrak okupatuz gero, kalte- ordaina jaso ahalko da, bai eta erabilerak eragin- dako kalte eta galerengatik ere .

38. artikulua. Erosi beharra errepide berriak eraikitzeagatik.

1. Errepide berriak eraikitzeke proiektuek Nafa- rroako Foru Komunitateko administrazioak erosi beharreko alboko jabari publikoko eremua finkatu- ko dute, foru lege honetan adierazitakoari jarraikiz mugatua. Oro har, alboko jabari publikoko eremu osoa erosiko da. Salbuespenezko kasuetan erosi beharrekoa murriztu ahalko da, arrazoiturik, ingu- runearen ezaugarriak, zer jarduketa edo errepide mota den, eta arrazoi sozialak eta ekonomikoak kontuan harturik, betiere bide bazterren antolaketa egokia, sarbideen kontrola, errepideko segurtasun eta haren ustiatze egokia bermatzen badira.

2. Alboko jabari publikoko eremuaren kanpoko mugatik eraikinen lerro berrira bitarte dauden erai- kinak edo instalazioak ez dira desjabetuko, salbu eta zortasun eremu berrian osorik nahiz zati bate- an daudenek errepidearen funtzionaltasuna edo bide segurtasuna arriskuan jartzen badute.

3. Babes eremu eta eraikinen lerro berria ezarri eta mugatzeak ez du kalte-ordainetarako eskubi- derik sortuko ukitutako lurretako eskubideen titula- rentzat.

II. KAPITULUA

Baimena jaso dezaketen erabilerak

39. artikulua. Errepidearen zelaigunean eta eremu funtzional eta zerbitzukoetan baimena jaso dezaketen erabilerak.

1. Errepidearen zelaigunean eta haren eremu funtzioaletan eta zerbitzukoetan soilik erabilera hauek jaso dezakete baimena:

a) Zerbitzuen sareei eta azpiegiturei jarraipena emateko nahitaezkoak diren gurutzatzeak.

b) Errepidera bertara sartzeko lanak.

2. Inola ere ez da baimenik emanen errepidea- ren integritaterako, bide segurtasunerako edo usti- atze egokirako kaltegarriak izan daitezkeen lanak edo instalazioak egiteko.

3. Aireko nahiz lurrazpiko bidegurutzeen baldin- tzak eta haien galiboarenak arau tekniko berariaz- koan ezarriko dira. Edozein kasutan, aireko bide- gurutzeetan euskarriak eraikinen lerrotik haratago paratuko dira, eta galtzadatik haietarainoko distan- zia ez da zutoinen altuera baino txikiagoa izanen.

40. artikulua. Alboko jabari publikoko eremuan baimena jaso dezaketen erabilerak.

1. Errepideetako alboko jabari publikoko eremu- an erabilera hauek baizik ez dute jasoko baimena:

a) Zerbitzuen sareei eta azpiegiturei jarraipena emateko nahitaezkoak diren gurutzatzeak.

b) Errepidera bertara sartzeko lanak.

2. Inola ere ez da baimenik emanen errepidearen osotasunerako, bide segurtasunerako edo ustiatze egokirako kaltegarriak izan daitezkeen lanak edo instalazioak egiteko.

3. Alboko jabari publikoko eremuan partikularren eskubideak baldin badaude lehendik, titularrrek soroak landu eta nekazaritza eta abeltzaintzako jarduerak bete ahalko dituzte baimenen beharrik gabe, bide segurtasunari kalterik ekaritzen ez badiote.

4. Ez da baimenik emanen zuhaitzak sartzeko.

5. Errepideen arloko eskumenak dituen departamentuak alboko jabari publikoko eremua erabili ahalko du bideen zerbitzu publikoak eskatzen duenean, bidezkoak diren kalte-ordainak ukatu gabe.

41. artikulua. Zortasun eremuan baimena jaso dezaketen erabilerak.

1. Errepideetako zortasun eremuan erabilera hauek baizik ez dute baimena jasoko:

a) Alboko jabari publikoko eremuan baimena jaso dezaketen erabilerak.

b) Luzetara doazen lurrazpiko hodiak, zerbitzuen sare eta azpiegiturenak, gehien bat eremuaren kanpoko mugatik gertuen dagoen toki erabilgarriak.

c) Itxiturak, foru lege honetan aurreikusitako moduan, betiere ikusgarritasun eta segurtasun baldintzak murrizten ez badituzte.

d) Lur mugimenduak eta zelaitzeak.

e) Bideak, aparkalekuak, irlatxoak edo lorategiak.

2. Inola ere ez da baimenik emanen errepidearen osotasunerako, bide segurtasunerako edo ustiatze egokirako kaltegarriak izan daitezkeen lanak edo instalazioak egiteko.

3. Ez da baimenik emanen zuhaitzak sartzeko.

4. Errepideen arloko eskumenak dituen departamentuak alboko zortasun eremua erabili ahalko du bideen zerbitzu publikoak eskatzen duenean, bidezkoak diren kalte-ordainak ukatu gabe.

42. artikulua. Galtzadaren eta eraikinen lerroaren artean baimena jaso dezaketen erabilerak.

1. Errepidearen galtzada mugatzen duen kanpoko lerrotik eraikinen lerroa debekaturik daude eraikin berri oro, bai eta zerbitzuko aireko lineak,

telekomunikazio zutoin edo dorreak paratzea ere, gurutzatzeak salbu.

2. Halere, sarbideetako eta errepideko bide segurtasuna bermaturik baldin badago eta erabilera aldaketarik edo eraikitako bolumenaren handitzerik eragiten ez badute, errepidearen galtzada mugatzen duen kanpoko lerroaren eta eraikinen lerroaren artean lehendik dauden eraikinetan honako lan hauek egin ahalko dira, errepideen arloko eskumenak dituen departamentuaren baimena eskuratu ondoren:

a) Alboko jabari publikoko eremuan dauden eraikinetan, mantentze eta zaintze lanak soilik.

b) Alboko jabari publikoko eremuaren kanpoko mugaren eta eraikinen lerroaren artean dauden eraikinetan, a) letran aurreikusitakoez gain, zaharberritzeak ere.

3. Foru lege honetan ezarritako araubideak ez du inola ere aldatuko antolamendutik kanpo dauden eraikinetarako hirigintza araudian xedatutakoa.

III. KAPITULUA Publizitatea

43. artikulua. Debekua.

1. Errepidearen hiri barneko tarteetan, V. tituluaren definitzen diren horietan, izan ezik, debeku da afixak edo publizitaterako bestelako elementuak paratzea, modu finkoan edo behin-behinekoan, errepidearen zelaigunean eta zabalera hau duen lur-zerrenda batean, zelaigunearen kanpoko lerrotik neurtuta:

a) Autobideak, autobiak eta bide bikoiztuak: 100 metro.

b) Prestazio handiko errepideak, interes orokorrekoak eta Foru Komunitatearen interesekoak: 50 metro.

c) Tokiko errepideak: 30 metro.

2. Debeku horrek ez du inolaz ere kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik ekarriko.

44. artikulua. Salbuespenak.

Aurreko artikuluan ezarritako debekua ez da kasu hauetan aplikatuko:

1. Errepideen arloko eskumenak dituen departamentuak paratu edo baimendutako afixa informatiboak. Ondorio horietarako, hauexek dira afixa informatiboak:

a) Zirkulazio seinaleak.

b) Seinale turistikoak eta, oro har, natur edo kultur intereseko tokiak, parajeak edo paisajeak adierazten dituzten afixak.

c) Errepidetik sarbidea duen trafikoa erakarzen duten populazioguneak eta gune garantzitsuak adierazten dituzten seinaleak.

d) Erakundeen iragarkiak edo instalazio publikoak edo garraio sistemarekin lotutako dagozkienak.

e) Errepidea ukitzen duten jardueri edo lanei buruzkoak edo erabiltzaileei bidearen egoeraz eta trafikoarekin lotutako beste inguruabarrez informazioa ematen dietenak.

f) Erregaien prezioari eta markari eta erregaien saltoki hurbilenei buruzko informazioa ematen dutenak.

2. Merkataritza edo industriako establezimenduak jardueraren berri ematen duten errotuluak. Errotulu horiek jarduera betetzen den eraikinetan edo lurretan egon beharko dira kokaturik, lurren kasuan eraikinen lerroa errespetaturik.

3. Errepidean bertan gauzatu beharreko ikuskin, ospakizun edo kultur edo kirol ekitaldiak edo antzekoak iragartzekoak, betiere ekitaldia nean unekoa bada.

45. artikulua. Publizitate elementuetarako baimena, baimena ezeztatzea eta kentzea.

1. Aurreko artikuluan zehaztutako baldintzetan baimena jaso dezaketen afixa informatiboak eta publizitatea interesatuek paratuko dituzte, errepideen arloko eskumenak dituen departamentuak baimena eman ondoren, eta haien ordainduko dituzte elementu horiek paratu, zaindu, mantentze-lanak egin eta kentzeak dakartzan kostua. Aurreko artikuluko 2. eta 3. idatz-zatietan aurreikusitako kasuetan ez da baimena beharrezkoa izanen, eta interesatuak izanen dira hirugarrenei eragin ahal zaizkion kalte eta galeren erantzule.

2. Baimena ezeztatu ahal da, kalte ordainik jasotzeko eskubiderik gabe, interesatuari entzutea eman ondoren, paratutakoa ez bada zaintzen, jarduera bertan behera gelditzen bada, errepidearen erabiltzaileentzako segurtasuneko arrazoiengatik edo ustiatze egokirako kaltegarria izateagatik.

Baimena ebazpen arrazoitu bidez ezeztatuko da, eta kasuaren araberrako epea emanen da ezeztapenaren xede diren publizitate elementuak kentzeko. Legezketasuna babesteko neurriak eta foru lege honetan aurreikusitako zehapenak ukatu gabe, ezarritako epea interesatuak publizitateko

elementuak kendu gabe iraganik, errepideen arloko eskumenak dituen departamentuak kenduko ditu, horretara beharturik zegoen titularraren kargura.

IV. KAPITULUA Baimenak oro har

46. artikulua. Araubide orokorra eta eskumena.

1. Errepideen zelaigunean, haren eremu funtzionalan, zerbitzukoetan eta babesekoetan, eta errepidearen eta eraikinen lerroaren artean dagoen eremuan obrak, instalazioak edo beste edozein jarduera betetzeko baimena eskuratu beharko da, salbu eta foru lege honetan libreaki egiteko baimen espresua ematen bada horretarako.

2. Errepideen arloko eskumena duen departamentuak du eskumena aurreko idatz-zatian aipatzen diren baimenak emateko errepideen hiri barneko tartetatik kanpo eta errepideen hiri barneko tartetan, jarduketek galtzadaren errealitate fisikoari edo errepidearen zelaigunearen gainerakori eragiten badiote.

Toki entitateak izanen dira eskudunak hiri barneko tartetan, foru lege honen V. tituluan ezarritako jarraikiz.

3. Ez da inolaz ere baimenik emanen errepidearen erabiltzaileen segurtasun baldintzak murriztea ekar dezaketen jarduketetarako, ez eta errepidearen zelaiguneari edo ustiatze egokiari kalte egin diezaiokeenik ere.

4. Errepideen arloko eskumena duen departamentuaren baimena independentea da eta ez dago kasuan kasuko obrak, instalazioak edo jarduerak egiteko beharrezkoak diren bestelako lizentzia eta baimenak ematearen eraginpean.

5. Baimenak ematean baldintza batzuk ezarriko dira, kasu bakoitzean errepideari, babes eremuari, elementu funtzionalari, bideko zirkulazioaren segurtasunari eta errepidearen ustiatze egokiari kalte eta galerarik ez eragiteko egokitzeak jotzen direnak.

47. artikulua. Tramitazioa.

1. Interesatuak baimen eskaera eginen dio errepideen arloko eskumena duen departamentuari, egin gogo den jarduketa kokatu eta zehazteko behar diren planoak edo krokisak eta, errepidea ukitzen denean, bide segurtasuna bermatzen duten seinale eta baliza neurriak ere, biltzen dituen txosten batekin.

Proiektuak, zirkulaziorako ukipen azterlanak edo txosten baloratuak aurkeztea beharrezkoa izanen da.

nen da soilik foru lege honetan aurreikusitako kasuetan, eta errepideen arloko eskumenak dituen departamentuaren iritziz eta arrazoiturik jarduketaren xedea eta norainokoa zein diren ongi jakiteko beharrezkoa denean.

Eskaeraren xedea baldin bada obrak edo instalazioak egitea, errepidearen zelaigunean eta albo-ko jabari publikoko eremuan zerbitzu sareak edo azpiegiturak paratzeko, egin nahi diren obren eta instalazioen proiektua ere aurkeztu beharko da, teknikari aditu batek izenpetua. Edozein kasutan, eskatzen den okupazioaren premia justifikatu egin beharko da.

2. Aurkeztutako dokumentazioa behin aztertutik, eta osatu gabea baldin bada, interesatuari eskatuko zaio hamar eguneko apean akatsa zuzen dezan, adierazirik hala egin ezean eskaera bertan behera utzi duela ulertuko dela.

3. Eskatutako jarduketa tokian bertan egiaztatutik eta egokituz jotzen diren tramite osagarriak behin eginik, baimena eman behar duen organoari ebazpen proposamena igorriko zaio. Ebazpen proposamen horretan baimena emateko baldintzak ezarriko dira, edo ukatzeko arrazoiak.

4. Ebazpena hiru hilabeteko epean eman beharko da eskabidea errepideen arloko eskumena duen departamentuaren erregistroan sartu eta biharamunetik hasita. Epe hori ebazpena jakinarazi gabe iragaten bada, interesatuak bere asmoa isiltasun administratiboz ezetsi dela ulertuko du.

48. artikulua. Baimenaren ondorioak.

1. Behar diren gainerako lizentziak eta baime-nak lortzeak baldintzaturik emanen dira baimenak, hirugarrenei kalterik eragin gabe eta lurren edo ondasunen gaineko alde aurretiko eskubideak salbu utzirik. Ez dute inolaz ere ekarriko jabari publikoaren lagapena, ez eta Nafarroako Foru Komunitateak bere gain hartzea inolako erantzukizunik baimenaren titularrarekiko edo hirugarrenekiko.

2. Baimendutako obrak edo instalazioak baime-nak berak ezarritako epeetan egin beharko dira, eta baimena iraungituz joko da baimendutako jarduerari epe horretan ekiten ez bazaio.

3. Errepideen arloko eskumenak dituen departamentuko langileek uneoro ikuskatu ahalko dituzte jarduketak, inolako mugarik gabe. Edozein kasutan, baimena obretan egon beharko da, langile horien eta trafikoaren arloko agente agintedunen eskura, jarduketak trafikoari eragiten badio.

4. Ezin zaie ekin baimendutako jarduketei errepideen arloko eskumenak dituen departamentuko

langileek bideen jabari publikoari dagokion zuinketa egin gabe. Ondorio horietarako, interesatua harremanetan jarriko da langile horiekin, baimenean adierazten den moduan, zuinketa egiteko aurreikusitako eguna baino hamar egun lehenago, gutxienez. Zuinketa egin dela eta haren edukia akta batean jasoko da. Adostasunik ez badago, xehetasun guztiekin agerraraziko dira eragozpenak, eta zuzenketarako epe proportziozko bat emanen da. Zuinketaren adostasun akta berekin ekarriko du obrak hasteko behin betiko baimena.

5. Obrak aurkeztutako dokumentazioaren eta baimenean ezarritako baldintzen arabera eginen dira, errepideko zirkulazioa eten edo oztopatu gabe, baimendutako salbuespenezko kasuetan izan ezik, eta betiere bide segurtasuna bermatuz.

6. Errepideen arloko eskumenak dituen departamentuak, aurkeztutako dokumentazioarekin edo baimenean ezarritako baldintzekin alderatuta, desbideraketak daudela antzemanaz gero, jarduketak geldiaraziko ditu berehala horiek zuzendu arte, bidezkoa den zehapen espedientea irekitzea ukatu gabe.

7. Baimenaren titularrak bere kontura lehengoratu beharko ditu bere jarduketak kaltea eragindako elementuak, jarduketaren aurretik zeuden egoeran utziz. Era berean, hirugarrenei eragindako kalte eta galeren erantzule izanen da.

8. Baimendutako obra eta instalazioak amaitutik, errepideen arloko eskumenak dituen departamentuak modu frogagarrian egiaztatuko du amaiera, egoera eta baimenean ezarritakoarekin bat datorren, bideen jabari publikoari dagokion aldetik. Ondorio horietarako, interesatuak departamentuari jakinaraziko dio, hamar egun lehenago gutxienez, obrak edo instalazioak amaitzeko aurreikusirik daukan eguna. Eragozpenik egonez gero, agerrarazi eginen dira, eta behar den epea haren horiek zuzentzeko. Adostasun aktak berekin ekarriko du obrak edo instalazioak erabiltzeko baimena.

9. Baimenak ondorioak izanen ditu baimena eragin duen xedeak dirauen bitartean, eta eskualdatu ahalko da, errepideen arloko eskumenak dituen departamentuari titularitatearen aldaketa jakinarazi ondotik.

49. artikulua. Baimenak aldatu edo etetea.

1. Errepideen arloko eskumenak dituen departamentuak edozein unetan aldatu edo eten ahalko du baimena, aldi baterako edo behin betikoz, honako kasu hauetan:

a) Jarduketak kalteak eragiten badizkio bideen jabari publikoari.

- b) Baimenaren baldintzak betetzen ez badira.
- c) Bide segurtasuna arriskuan jartzen bada.
- d) Ematea eragin duten baldintzak aldatzen badira.

2. Baimena aldatu edo eteteko prozedura ofizioz edo alderdi batek eskatuta hasiko da, eta errepideen arloko eskumenak dituen departamentuak eginen du haren instrukzioa. Ebazpen proposamena igorri aurretik, halere, interesatuei entzutea emanen zaie, beren eskubideen alde komenigarritzat dituzten alegazio guztiak aurkez ditzaten.

50. artikulua. Bermeak.

1. Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren bideen jabari publikoan edozein jarduketa betetzeko, interesatuei berme bat era dezaten eskatu ahalko zaie, gehienez ere baimenaren xede den jarduketaren aurrekontu osoa adinakoa izan daitekeena.

2. Berme horri urtebetez eutsi beharko zaio adostasun aktaren egunetik hasita, eta ez du zerikusirik baimena lortzeak oro har sorraraziko dituen tasekin, baimenean ezarritako baldintzak ez bete-
tzeak ekar ditzakeen erantzukizunak ukatu gabe.

3. Interesatuak kalte edo galerak eragiten badizkiote bideen jabari publikoari, errepideen arloko eskumena duen departamentuak bermea inkautatuko du kalte eta galerek egiten duten zatian. Edozein kasutan, kalte eta galeren balioa Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak inkautatutako bermea baino handiagoa bada, interesatuak kalte-ordainak ordaindu beharko dizkio administrazioari, gehiegizko kopuru horren balioa.

4. Eraikuntzaren ezkutuko akatsengatik obra hondatu edo andeatzen bada bermearen epea ahitu ondoren, hamabost urteko epean, adostasun aktatik hasita, baimenaren titularra izanen da sortutako kalte eta galeren erantzulea.

V. KAPITULUA **Baimen bereziak**

1. atala **Itxiturak**

51. artikulua. Baimena jaso dezaketen kasuak.

Itxiturek honako kasu hauetan jaso dezakete baimena:

- 1. Lehendik dauden itxiturak.

Errepidearen zelaigunean izan ezik, jarduketa hauek jaso dezakete baimena:

- a) Mantentze-lanak.

b) Lehengoratzeko lanak, hondaturik egonez gero, itxiturak zituen lerrokadura eta ezaugarri berekin, betiere bide segurtasunari edo errepidearen integritateari kalte begi bistakoa eragiten ez bazaio.

- 2. Itxitura berriak.

Baldintza hauetan jaso dezakete baimena:

a) Diafanoak, zimentaziorik gabeko zutoinekin, alboko jabari publikoko eremua kanpotik mugatzen duen lerrotik hasita.

b) Diafanoak, fabrika-obra zimentuekin, zortasun eremua kanpotik mugatzen duen lerrotik hasita.

c) Ez-diafanoak edo fabrika-obra itxiturak, eraikinen lerrotik hasita.

52. artikulua. Lehendik dauden itxiturak, errepidea berritzeko lanek ukitutakoak.

1. Lehendik zeuden itxiturak errepidea berritzeko obrek ukitzen badituzte, administrazioak lehengoratzeko ditu, lehengo ezaugarri eta lerrokadura berberak dituztenak ezarri, baina betiere administrazioak erositako alboko jabari publikoko eremua mugatzen duen lerrotik haratago.

2. Salbuespen gisa, eta behar bezala justifikaturiko interes sozioekonomikoko arrazoiengatik, lehendik zeuden itxiturak errepidea berritzeko obrek ukitzen badituzte, administrazioak berriz paratu ahalko ditu lehen zituzten baldintza berberetan egiturari eta zelaigunearen kanpoko lerrotik izan beharreko distantziari dagokienez, baldin eta ez badio begi bistako kalterik eragiten bide segurtasunari edo errepidearen integritateari.

2. atala **Sarbideak**

53. artikulua. Sarbideak mugatzea.

1. Errepideen arloko eskumenak dituen departamentuak Nafarroako errepide sarean sarturiko dauden errepideetako sarbideak mugatu eta antolatuko ditu, eta ezarri sarbide horiek zein tokitan eta zer baldintzekin eraiki behar diren, araudi indarduna eta errepideko trafikoaren intentsitatea, bide segurtasuna eta funtzionaltasuna kontuan hartuta.

Nolanahi ere, lehentasuna emanen zaio lehendik dauden sarbideak erabiltzeari, eta sarbide berriak egiteko aukerak ahal den gehien murriztuko dira.

2. Seinale horizontal eta zutikakoak bide segurtasuna dela-eta aldatzea ez da sarbideen mugaketa edo antolaketatzat hartuko, eta errepideen arloko eskumena duen departamentuak zuzenean egin ahalko du aipatutako arrazoiengatik beharrezkoa denean.

54. artikulua. Sarbideak eskatzea.

Nafarroako errepide sarean sartzeko eskaerari, foru lege honek izaera orokorrarekin eskatzen duen dokumentazioaz gain, sustatu nahi den jarduketak sarean izanen duen eragina jasotzen duen trafikoari buruzko azterlan bat ere erantsi beharko zaio, jarduketaren garrantziak hala eskatzen duenean errepideen arloko eskumenak dituen departamentuaren irizpide arrazoituari jarraikiz.

55. artikulua. Baimena.

1. Errepideen arloko eskumena duen departamentuak baimena emanen du, bidezkoa bada, sarbidea egiteko; ebazpenean ezarriko dira horretarako baldintzak, beste sestra batean jartzeko balizko betebeharra barne.

Baldintzak ezartzeko honakoak hartuko dira kontuan: egin gogo den jarduketa, sarbidearen xede den errepidearen ezaugarri teknikoak eta trafikokoak eta sarbidearen bide segurtasuna.

2. Era berean, erabilerei mugak ezarri ahal zaizkio, horretarako arrazoiak edukita komenigarritzat jotzen direnak, sarbidea beste erabiltzaile batzuentzat ere irekitzea eta bateragarria egitea.

56. artikulua. Sarbidea eraiki, haren titularitatea eta zainketa.

1. Nafarroako errepideen sarerako sarbide berriak proiektatu eta eraikitzea eskatzaileak ordainduko ditu, eta lan horiek errepideen arloko eskumena duen departamentuaren baimenean ezarritako zehaztapenei jarraikiz beteko dira.

2. Sarbide berriaren zati bat alboko jabari publiko eremuan baldin badago edo funtzionalki errepideari erantsi behar bazaio, zati hori Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren bideen jabari publikoan sartuko da. Bideen jabari publikoan sartzeko ez den gainerakoaren jabetza, zainketa eta mantentzea ez dagozkio Nafarroako Foru Komunitateko administrazioari.

57. artikulua. Administrazioak sustatutako proiektuak.

1. Errepideak eraikitzeko proiektuetan eta errepideen arloko eskumena duen departamentuak sarbideak egiteko sustatzen dituen proiektu berriazkoetan antolatu edo lehengoratu ahalko dira sarbideak; bigarren kasuan, jendaurrean jarri

beharko da proiektua hilabetean, partikularren ondasunak edo eskubideak erosi behar direnena.

Sarbideak antolatu edo lehengoratzeko proiektu berriazkoen onespenez berekin ekarriko du erabilera publikoaren deklarazioa eta hura gauzatzeko beharrezkoak diren ondasun eta eskubideak okupatu beharrarena, guztia nahitaezko desjabetzeari buruzko araudian ezarritakoarekin bat.

2. Antolatu edo lehengoratu ondoren, sarbideen titularitatea haien jatorrizko titularraren izanen da.

3. Proiektuetan sarbideak, behin erabiltzen hasita, antolatu edo bateratzeko bideak eraikitzea aurreikusten denean, bideen titularitatea, zainketa eta mantentze-lanak haien onuradunei dagozkie.

4. Errepideen arloko eskumena duen departamentuak beste titular batzuen lurretan barna desjabetzeen bitartez bide zortasuna ezarri lehengoratu ahalko ditu sarbideak.

3. atala

Gasolina-zerbitzuguneak

58. artikulua. Baimenak.

1. Nafarroako errepideen sareko errepideetako eremu funtzionaletatik eta zerbitzuetatik kanpo gasolina-zerbitzuguneak jartzeko baimenerako prozedura, arautzea eta eskumen araubidea foru lege honetan baimeni buruz ematen diren xedapen orokorrek zuzenduko dituzte, eta erregelamenduz xedatzen denak.

2. Edozein kasutan, eskaerari teknikari aditu batek prestatutako proiektua erantsi beharko zaio. Errepideetako azpiegiturak ukitzen dituzten gasolina-zerbitzuguneetako elementu guztien proiektuetan eta exekuzioan, ezaugarri teknikoak ez dira izanen Nafarroako errepideen plan zuzendarian gasolina-zerbitzugunea kokaturik dagoen errepideetarako ezarri direnak baino apalagoak.

VI. KAPITULUA

Bideetako legezkotasunaren babesa

59. artikulua. Babes neurriak.

1. Errepideen arloko eskumena duen departamentuak xedatu ahalko du, bestelako tramiterik gabe, ebazpen arrazoituaren bidez, obrak berehala geldiaraztea eta baimenik gabeko erabilerak edo berak emandako baimenean ezarritako baldintzak betetzen ez dituztenak etetea.

2. Errepideen arloko eskumena duen departamentuak eska dezake, ura edo energia elektriko hornitzen duten enpresei behar den bezala jakina-

raziz, hornidura eten diezaieten, bost egun naturaleko epean, geldiarazi edo etenarazi diren obrei edo erabilerei, hala xedatu ondoren. Horniduraren etetea obrak edo erabilerak legeztatu ondoren baik ez da altxatuko, eta departamentuak hornidura enpresei horren eman ondoren.

3. Errepideen arloko eskumena duen departamentuak obrak eta instalazioak zigilatu ahalko ditu eta interesatuari agindu makinak eta bertan pilatutako materiala eraman ditzan bi egun naturaleko epean. Eramateko betebeharrak betetzen ez bada, departamentuak egin ahalko du, betiere interesatuaren kontura.

4. Baimendu gabeko jarduketak edo baimenari lotzen ez zaizkionak oso arriskutsuak baldin badira bide segurtasunerako, errepideen arloko eskumena duen departamentuak errepidearen segurtasuna bermatzeko egokitzat jotzen dituen neurriak hartu ahalko ditu, interesatuaren kontura eta beste tramiterik gabe.

5. Geldiarazi edo eteteko ebazpenean interesatua premiatuko da bost egun naturaleko epean obrak edo erabilerak legeztatzeke eska dezan, legeztatzeke modukoak badira, edo bestela egokia iruditzen zaiona alega dezan.

6. Interesatuak ez badu epe horretan eskatzen legeztatzea edo jarduketa ez bada legeztatzeke modukoa, errepideen arloko eskumena duen departamentuak erabaki dezake, ebazpen arrazoi-tu baten bidez, obrak eraistea, erabilerak behin betikoz etetea eta aldatutako errealitate fisikoa bere onera bueltaraztea, eta eskatu ahal dio interesatuari ematen zaion epean bete dezan erabakitakoa. Epe hori interesatuak eskatutako bete gabe iraganik, departamentuak, beste tramiterik gabe, subsidiarioki beteko du, interesatuaren kontura.

60. artikulua. Bideen jabari publikoari eragindako kalte eta galerak.

1. Errepideen arloko eskumena duen departamentuak bideen jabari publikoari eragindako kalteak konpondu eta bertan aldatutako errealitate fisikoa lehengoratzeko behar diren neurriak beteko ditu, beste tramiterik gabe eta kalteen eragilearen kontura.

Kalteen eragileak sortutako kalte eta galerak ordaindu beharko dizkio Nafarroako Foru Komunitateko administrazioari horretarako emanen zaion epean.

2. Aurreko idatz-zatian xedatutakoa gorabehera, errepideen arloko eskumena duen departamentuak bideen jabari publikoari eragindako kalte eta galeren ordainketa zuzenean eskatu ahalko die kalteak eragin dituenaren erantzukizun zibilak

dakarren arriskua bere gain hartu duten aseguratzaileei.

61. artikulua. Jarduketan bateragarritasuna.

Bideen legezkotasuna babesteko kapitulu honetan jasotako neurriak hartzea ez da oztopo bidezkoak izan daitezkeen zehapen eta erantzukizunetarako, eta errepideen arloko eskumena duen departamentuak bereizirik nahiz foru lege honetan aurreikusitako zehapen prozeduraren barnean agindu eta betearazi ahalko ditu.

62. artikulua. Objektuak kentzea.

Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak, beste tramiterik gabe eta interesatuaren kontura, errepideko zelaigunean eta eremu funtzionaltan eta zerbitzukoetan eta alboko jabari publikoko eremuetan abandonatu, jarri edo utzitako objektu edo elementu guztiak kenduko ditu, bideko segurtasun egokia murriztu edo erabilera ohikoa oztopatzen badute.

V. TITULUA

Errepideen hiri barneko tartearak eta zeharbideak

I. KAPITULUA

Hiri barneko tartearak

63. artikulua. Kontzeptua.

Foru lege honen ondorioetarako, errepide baten hiri barneko tartea hau da: udal hirigintza planeamendurako kasuan kasuko tresnan hirikotzat sailkatutako lurzoruan barna doana edo haren mugakidea dena.

64. artikulua. Eskumenak.

1. Errepideen hiri barneko tartetean, toki entitateek izanen dute baimenak emateko eta zehapen ahalmena erabiltzeko eskumena, salbu eta galtzadaren errealitate fisikoa edo zelaigunearen gainetarako ukitzen duten kasuetan, horien eskumena Nafarroako Foru Komunitateko administrazioan errepideen eskumena duen departamentuarena baita.

2. Hirigintza-planeamenduaren sailkapenaren arabera hirikoa den lurzoruarekin bazterretako batean bakarrik mugakide diren errepide tartetean, toki entitateek eskumena izanen dute bazter horri dagozkion jarduketetarako, eta errepideen arloko eskumena duen departamentuak, berriz, errepide horren kontrako bazterri dagozkiona.

65. artikulua. Eraikinen lerrokadura.

1. Errepideen hiri barneko tartetean, eraikinen lerrokadura udaleko hirigintza planeamenduan

zehaztuko da, errepideen arloko eskumena duen departamentuak hirigintzako araudian xedatutakolari jarraikiz txostena eman ondoren.

2. Departamentu horrek aurreko idatz-zatian aurreikusitako ondorioetarako prestatzen duen txostenean, arrazoiturik bada errepideetako eraikinen lerrorako foru lege honetan aurrekusi direnak baino distantzia txikiagoak ezarri ahalko dira, lehendik eraikin jarraiak daudela baloratuta eta murrizketa komenigarria egin dezaketen arrazoi teknikoak, sozioekonomikoak edo orografiakoak daudela kontuan hartuta.

II. KAPITULUA Zeharbideak

66. artikulua. Kontzeptua.

1. Foru lege honen ondorioetarako, zeharbidea hauxe da: errepide baten hiri barneko tartea, haren bi bazterretako batean gutxienez herri edo hiriko hiri-bilbaduraren parte diren eraikin sendotak daudenean.

2. Herri edo hirira sartzeko errepideak jarraipenik ez badu, errepide hori hirigunearen hasieran amaitzen dela ulertzen da. Kasu horretan herriak edo hiriak ez du zeharbiderik.

67. artikulua. Titularitatea eta kudeaketa.

1. Zeharbideen titularitatea Nafarroako Foru Komunitateko administrazioarena da, ibilgailuen zirkulaziorako prestatutako zoruaren eremura eta, baldin badaude, bide bazterretara mugatua.

2. Nafarroako errepide sarearen zeharbideen kudeaketa errepideen arloko eskumena duen departamentuari dagokio, baina toki entitate interesatuekin itundu ahalko du haiek zaindu, hirian txertatu eta funtzionaltasunari begira bidezkoztatzen duena.

3. Errepideen arloko eskumena duen departamentua eta toki entitate eskuduna lankidetzan arituko dira zeharbideetan oinezkoen eta ibilgailuen trafikoaren arteko bizikidetzak laguntzeko, hiriko bizi kalitatea eta bide segurtasuna hobekien izan daitezkeen.

4. Zeharbideetan obrak egin eta finantzatzeko prozedura erregelamenduz zehaztuko da.

68. artikulua. Hiri bide bilakatzea.

1. Herri batean saihesbidea eraikitzen denean, bertako zeharbidearen tartea hiri bide bilakatuko dira, eta herri edo hiriko hiriguneraino daraman errepide tarte edo tartea, berriz, Nafarroako errepide sarean mantenduko dira.

2. Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak toki entitateari emanen dio hiri bide bilakatu den zeharbidea, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren ondareari buruzko araudian aurreikusitako tramitazioari jarraikiz, toki entitate interesatuak edo errepideen arloko eskumena duen departamentuak proposaturik.

3. Erregelamendu bidez ezarriko da zein diren bete beharreko baldintzak zeharbide bat hiri bide bilakatzeko, bai eta toki entitate bati emateko prozedura eta baldintzak ere. Behin eman ondoren, hiri bidearen titularitatea toki entitatearena izanen da, eta Nafarroako zeharbideen inbentarioan eta errepideen katalogoan baja emanen zaio.

III. KAPITULUA

Nafarroako zeharbideen inbentarioa

69. artikulua. Zeharbideen inbentarioa.

1. Nafarroako zeharbideen inbentarioa da zeharbideak antolatzeko tresna publikoa, eta honakoak hartzen ditu barne: haien zerrenda zehaztua, eta bakoitzaren mugaketa, adierazpen grafikoa eta identifikatzeko beharrezkoak diren inguruabar guztiak. Herri edo hiri bate zeharbide bat edo batzuk izan ditzake.

2. Edozein administrazio publikok edo entitatek egin eta inbentarioko zeharbideren bat ukitzen duen aldaketa edo jarduketa oro jakinarazi behar zaizkio errepideen arloko eskumena duen departamentuari, inbentarioa gaurkotzeko.

3. Nafarroako zeharbideen inbentarioa errepideen arloko eskumena duen departamentuko kontseilariak emaniko foru agindu bidez onetsi, gaurkotu eta aldatuko dira.

4. Inbentarioan sartutako zeharbideen mugak ofizioz edo toki entitate interesatuak eskatuta aldatu ahalko dira, eta ofizioz eginez gero entzutea eman beharko zaio toki entitateari hamabost eguneko epean.

5. Nafarroako errepide sareko zeharbideen zerrenda, herriz herrikoa, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da errepideen katalogoarekin batera, adierazitako kasuan kasuko errepidea, mota eta zeharbidearen hasierako eta amaierako kilometro puntuak, Nafarroako zeharbideen inbentarioan jasotakoaren arabera.

VI. TITULUA Zehapenen araubidea

I. KAPITULUA Arau-hausteak

70. artikulua. Bideen arloko arau-hausteak

Bideen arloko arau-hauste administratiboak foru lege honetan jasotako aginduak urratzen dituztenak dira, eta bertan ezarrita daude motak.

71. artikulua. Arau-hauste motak.

1. Hauek dira arau-hauste arinak:

a) Errepideko zelaigunean, eremu funtzionaltan eta zerbitzukoetan eta babesekoetan, eta errepidetik eraikinen lerrora bitarteko eremuan obrak, instalazioak, erabilerak edo jarduketak betetzea behar den baimena izan gabe, edo emandako baimenetan ezarritako manuren bat ez betetzea, ondoren legeztatzeko modukoak direnean.

b) Edozein motatako objektuak, elementuak edo materialak paratu, isuri, bota edo abandonatzea eremu funtzionaltan eta zerbitzukoetan edo Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren titularitatekoa den alboko jabari publikoko eremuan, errepideen erabiltzaileak arriskuan jarri gabe.

2. Hauek dira arau-hauste larriak:

a) Errepideko zelaigunean, eremu funtzionaltan eta zerbitzukoetan eta babesekoetan, eta errepidetik eraikinen lerrora bitarteko eremuan obrak, instalazioak, erabilerak edo jarduketak betetzea behar den baimena izan gabe, edo emandako baimenetan ezarritako manuren bat ez betetzea, ondoren legeztatzeko modukoak ez direnean.

b) edozein motatako objektuak, elementuak edo materialak paratu, isuri, bota edo abandonatzea errepideko zelaiguneari edo eremu funtzionaltari eta zerbitzukoari edo babeseko eremuei eraginez, betiere, azken bi kasuetan, errepideen erabiltzaileak arriskuan jartzen badituzte.

c) Errepideko edozein elementu, zirkulazioaren antolaketa, orientazio, seinalizazio eta segurtasunarekin lotura zuzena duena, nahita hondatzea edo haren ezaugarriak edo kokapena aldatzea.

d) Errepideko edo haren elementu funtzionaltako edozein obra edo instalazio nahita suntsitu, hondatu, eraldatu edo aldatzea.

3. Hauek dira arau-hauste oso larriak:

a) Errepideko zelaigunean, eremu funtzionaltan eta zerbitzukoetan eta babes eremuetan, eta errepidetik eraikinen lerrora bitarteko eremuan obrak, instalazioak, erabilerak edo jarduketak

betetzea behar den baimena izan gabe, edo emandako baimenetan ezarritako manuren bat ez betetzea, ondoren legeztatzeko modukoak ez direnean eta gainera bide segurtasunari eragiten diotenean.

b) Errepideko edozein elementu, zirkulazioaren antolaketa, orientazio, seinalizazio eta segurtasunarekin lotura zuzena duena, lapurtzea edo nahita suntsitu edo hondatzea, edo haren ezaugarriak edo kokapena aldatzea, kasuan kasuko elementuak bere eginkizuna betetzen segi dezan galaraziz.

c) Errepideko edo haren elementu funtzionaltako edozein obra edo instalazio nahita suntsitu, hondatu, eraldatu edo aldatzea, jarduketek galtzadari edo bide bazterrei eragiten badiete.

d) Babes eremuetan edozein motatako instalazioak paratzea, edo errepidearen erabiltzaileei arriskuak edo eragozpenak ekar diezazkieketen jarduerak edo osasunerako kaltegarri direnak betetzea, halakoak saihesteko neurri egokirik hartu gabe.

72. artikulua. Arau-hausteak pilotzea

Gertaera batek bideko arau-hauste batzuk dakartzanean, erantzuleei zehapen bakarra ezarriko zaie, arau-hauste larrienerako aurreikusitakoa alegia.

73. artikulua. Erantzukizuna

1. Arau-haustearen erantzule pertsona fisiko edo juridiko hauek izanen dira:

a) Jardueraren sustatzailea, jarduera betetzen duen pertsona eta haren zuzendaria den teknikaria. Ondorio horietarako sustatzailetzat hartzen da, halaber, arau-haustea dakarren jarduera egiten den lurren jabea, berau jakinaren gainean dagoe-la.

b) Baimen administratibo baten baldintzak betetzen ez direnean, haren titularra.

2. Arau-haustearen erantzule pertsona batzuk direnean, guztiek izanen dute erantzukizun solidarioa ezartzen den zehapenaren aurrean, sortutako kalte eta galeren ordaina emateko eta aldatutako errealitate fisikoa lehengoratzeari begira.

74. artikulua. Itzultzeko betebeharra.

Ezartzen den zehapena ukatu gabe, foru lege honetan aurreikusitako arau-hausteetako baten erantzuleak beharturik daude arau-hausteak eragindako kalte eta galeren kalte-ordainak ematera eta gauzak lehen zeuden bezala jartzera berriz.

75. artikulua. Arau-hausteen preskripzioa.

1. Arau-hausteak preskribatzeko epea bost urtekoa izanen da arau-hauste oso larrien kasuan, lau urtekoa arau-hauste larrien kasuan eta urtebetekoa arinen kasuan.

2. Preskripzio epea arau-haustea eginiko egunean hasiko da kontatzen edo, jarduera jarrai baten kasuan, eten egin zen egunetik. Arau-haustea ekarritako jardueraren berri izaterik ez badago kanpoko adierazpenik ez dagoelako, adierazgarri horiek agertzen hasiko da kontatzen epea. Zehapen prozedura hasteak, arau-hausleak horren berri izanda, preskripzioa etenen du.

II. KAPITULUA

Zehapenak

76. artikulua. Zehapenak.

Foru lege honetan aurreikusitako arau-hausteen kontrako zehapenak isun hauek izanen dira:

a) Arau-hauste arinak, 300etik 1.500 eurora bitartekoa.

b) Arau-hauste larriak, 1.501etik 6.000 eurora bitarteko isuna.

c) Arau-hauste oso larriak, 6.001etik 150.000 eurora bitarteko isuna.

Bideko arau-hauste batek ekarritako etekina dagokion zehapena baino handiagoa denean, zehapenari gehituko zaio arau-hausleak lortutako etekina adinako zenbatekoa.

77. artikulua. Mailaketarako inguruabarrak.

Zehapen proposamenerako honako inguruabarrak hartuko du aintzat:

1. Astungarriak:

a) Eragindako kalte eta galeren izaera.

b) Sortutako arriskua.

c) Garrantzia edo sortutako alarma soziala.

d) Kaltearen eragilearen edo erantzulearen intenzionalitatea.

e) Gertaera berean lege urratzeak pilatzea.

f) Berrerortzea, urtebeteko epean izaera bereko bideko arau-hauste bat baino gehiago egiteagatik, administrazio ebazpen irmo bidez hala erabaki denean.

g) Aldatutako errealitate fisikoa lehengoratzek eta eragindako kalte eta galerak itzultzek duten zailtasun teknikoa edo kostu ekonomikoa.

h) Bideetako zerbitzu publikoari eragindako asalduraren norainokoa.

i) Agindutako kautelazko neurriak ez betetzea.

2. Aringarriak:

a) Jarduketaren erantzulea agintearen agenteei laguntzea edo espedientearen instrukzioa egitean.

b) Erantzuleak eragindako kaltea arindu izana zehapen espediente ireki aurretik edo aldatutako errealitate fisikoa zehapena ezarri aurretik.

78. artikulua. Zehapenen mailaketa.

Ezarri beharreko isunaren zenbatekoa mailaketarako inguruabarrak kontuan hartuz zehaztuko da.

79. artikulua. Zehapenak pilatzea.

1. Bideko arau-hauste baten ondorioz erantzuleei ezartzen zaizkien zehapen administratiboak independenteak dira.

2. Bideko arau-haustea dakarten bi gertaeraren edo gehiagoren erantzuleek foru lege honetan aurreikusitakoaren arabera zehapenak jasoko dituzte ekintza bakoitzeko, erantzukizuna administrazio prozedura bakar batean aztertu badaiteke ere.

80. artikulua. Zehapenen preskripzioa.

duten ordezkartzaren eta parte-hartzearen espa- rruan gertatu da, izan ere, Foruzaingoaren planti- llak azken urteotan izan duen igoera dela eta, ezinbestekoa gertatu da Administrazioarentzako eta kidego horretako kideentzako ordezkartza organo kolejiatu bat sortzea, bitarteko lana egite- ko, parte-hartzea bideratzeko eta aholku, informa- zio edo proposamenak egiteko, Polizia Nazionalak edo polizia autonomikoek dutenaren antzekoa. Organo horretako alderdi soziala kideek demokra- tikoki aukeratuko dute eta horrela poliziaren kolek- tiboaren zuzeneko ordezkartza berriazkoa berm- atzen da.

8

Polizia funtzionarioen diziplina araubidea ere berregin da, eguneratu eta oso-osorik arautzeko, erregelamenduzko garapenaren beharrik gabe. Arau-hausteen sailkapena azken urteotan hartuta- ko eskarmentuan oinarritzen da. Gainera, bi zeha- pen prozedura bereizten dira: bata, arau-hauste larri eta oso larrientzat, zeinaren arintasuna gaine- rako herritarrek beste zehapen prozedura batzue- tan dituzten lege-berme berberen menpe dagoen (horrela, herritarrek dituzten bermeak polizia kide- gora hedatzen dira); eta bestea, arau-hauste ari- nentzako prozedura, non prozeduraren sumariota- sunak ez duen galarazten idatzizko prozedura bat aplikatzea eta interesatuari entzunaldia ematea.

ATARIKO TITULUA

Xedea eta definizioak

1. artikulua. Xedea.

Foru lege honek ondoko helburuak ditu, Nafa- rroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 49.1.b) eta 51. artiku- luak garatuz eta Konstituzioaren lehenengo xeda- pen gehigarriaren babesean:

a) Nafarroako Foruzaingoaren araubidea egu- neratzea eta ezartzea.

b) Nafarroako polizien koordinazio normatibo eta administratiboa, Segurtasun Publikoari buruz- ko Foru Legeak arautu ez dituen alderdietan eta orobat, albienteen eta Nafarroako Udaltzaingoko udaltzain laguntzaileen araubide berriazkoa ezar- tzea.

c) Nafarroako polizia kidegoen langileen esta- tutua arautzea.

2. artikulua. Definizioak.

Foru lege honek agintzen duenerako, honako definizioak hartuko dira aintzat:

a) "Polizia kidegoa": segurtasun publikoaren ardura duten zerbitzuen multzoa. Kidegoetan poliziaburua, poliziak, fakultatiboak eta, batzuetan, polizia laguntzaileak izanen dira, izaera zibila izanen dutenak. Kidegoak unitate eta egitura hierarkizatuak ditu.

b) "Nafarroako polizia kidegoak": Nafarroako Foruzaingoa eta Nafarroako udaltzaingoa.

c) "Nafarroako Foruzaingoa": Nafarroako Foru Komunitateko polizia kidego propioa.

d) "Udaltzaingoa": Nafarroako toki entitate baten menpe dagoen polizia kidegoa.

e) "Polizia": segurtasun publikoa zaintzeko ardura duen funtzionario publikoa, kasuan kasuko polizia kidegoan sartua eta legeek horretarako ematen dioten agintea duena.

f) "Albientea": Udaltzaingorik ez duen toki entitate bateko langileak, foru lege honetan ezarritako eginkizunak bere gain hartzen dituztenak, lanpostuak izendapen hori bera izan edo beste bat.

g) "Udaltzain laguntzailea": Udaltzaingoa duten toki entitateek administrazio araubidean aldi baterako kontratatzen dituzten langileak, kidego horretako langileak ordezkatzeko, absentismoaren eraginez, plantilla organikoan hutsik dauden lanpostuak betetzeko edo segurtasun publikoaren arloan une jakin batzuetan gertatzen diren beharrei kasu egiteko langile finkoekin aski ez dutenean kontratatzeko.

h) "Kontseilari eskuduna": Nafarroako Gobernu-ko lehendakariaren foru dekretu baten bidez segurtasun publikoaren, foruzaingoaren edo Nafarroako udaltzaingoen koordinazioaren arloko eginkizun eta eskumenak esleiturik dituen Nafarroako Gobernu departamentuaren titular den kontseilaria.

I. TITULUA

Nafarroako Poliziak

I. KAPITULUA

Xedapen orokorrak

3. artikulua. Nafarroako polizia kidegoen helburua.

Hauexek dira Nafarroako polizia kidegoen helburuak:

a) Segurtasun eta lasaitasun publiko zaintzea, legeak errespetatzen direla bermatzea eta gizartearen ordena gordetzea.

b) Ordenamendu juridikoaren arabera, pertsonak aitorturik dituzten askatasun eta eskubideak babestea eta begiratzea.

c) Delinkuentziari aurre egitea eta haren kontra borrokatzea.

d) Delinkuentziari behar den segimendua egitea.

e) Herritarrei laguntza eta zerbitzuak ematea.

4. artikulua. Nafarroako polizia kidegoetako kideen jardunaren oinarriko printzipioak.

Nafarroako polizia kidegoetako kideak ondoko oinarriko printzipio hauei jarraikiz arituko dira:

a) Konstituzioak, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoak eta antolamendu juridikoak agintzen dutena bete eta betearaziko dute.

b) Erabateko neutraltasun politikoz eta inpartzialtasunez jokatu dute eta, horrenbestez, arraza, erlijioa, iritzia, sexua, hizkuntza, jaioterria, bizitokia edo beste edozein gizarte egoera edo inguruabar pertsonal dela-kausa inolako bazterketarik egin gabe.

c) Osotasunez eta duintasunez jokatu dute eta ustelkeriazko egintza orori aurre egingen diote irmoki.

d) Hierarkia eta menpekotasun printzipioei men egingen diete. Dena dela, beharrezko obediencia hori ezin izan da baliatu delitua dakarren edo nabarmen legeen kontra doan zerbait egiteko aginduren bat babesteko.

e) Zerbitzua dela eta egiten dituzten jarduketan berri emanen diete kidegoko buruei, hala nola lan horien kausa eta zergatikoen berri ere.

f) Justizia Administrazioari laguntzea indarreko arauetan ezarrita dagoen moduan.

g) Abusuan, arbitrariotasunean edo bazterkerian oinarritzen diren jokabideak galaraziko dituzte, horrek indarkeria fisiko edo morala ekartzen badu.

h) Herritarrekiko tratuan egoki eta adeitasunez jokatu dute beti eta beharrezkoa denean edo herritarrek eskatzen dutenean haien laguntzen eta babesten ahaleginduko dira, eta egiten dituzten esku-hartzeen kausa eta helburuei buruz behar den informazioa emanen diete.

i) Kementsu eta azkar jokatu dute, jokabide hori kalte larri, berehalako edo konponezin bat saihesteko beharrezkoa denean. Horrelakoetan, koherentzia, egokitasun eta proportzionaltasun printzipioen arabera erabiliko dituzte eskura dituzten baliabideak.

j) Erregelamenduzko armak beren edo beste pertsona batzuen bizia edo osotasun fisikoa benetan arrisku larrian dagoenean baino ez dituzte erabiliko, edo herritarren segurtasunerako arrisku larria dagoen egoeretan.

k) Atxiloteta bat egiten dutenean, beren burua kasu kasuko polizia kidegoko kide gisa identifikatuko dute, bai, halaber, beren jokabideak herritarrek legez dituzten eskubide eta askatasun publikoak mugatzen dituen egoera guztietan.

l) Atxiloturik dauden edo zaintzapean dituen pertsonen bizia eta osotasun fisikoa begiratu dute eta haien ohorea eta duintasuna errespetatu.

m) Pertsona bat atxilotzen den kasuetarako, antolamendu juridikoak ezartzen dituen izapide, epe eta betebeharrak behar bezala bete eta begiratu dituzte, epaileen aurrean lehenbailehen eramateko.

n) Lan dedikazioari dagokionez, erabateko dedikazioan arituko dira, eta, hortaz, pertsonen bizia eta osotasuna, legea eta herritarren segurtasuna defendatu behar diren guztietan esku hartuko dute, nonahi egonda, lanean izan ala ez izan, baita edozein delitu saihesteko ere.

o) Lanbideko sekretuari dagokionez, laneko jarduna dela-bide eskuratzen duten informazioa isilpean gordeko dute zorrozki, informazio-iturrien berri eman gabe, salbu eta dagozkien eginkizunengatik edo lege-xedapenak aginduta beharrezkoa denean.

p) Lanbide jardueran legezko arauak, beren lanbidea arautzen duten erregelamenduzko arauak edo artikulua honetako printzipioak urratuz egiten dituzten egintzen erantzule zuzenak izanen dira, deusetan galarazi gabe Administrazio Publikoiei egokitzen ahal zaien ondare-erantzukizuna.

II. KAPITULUA

Nafarroako polizia kidegoen antolaketa

5. artikulua. Nafarroako polizia kidegoak antolatzeke irizpide nagusiak.

Nafarroako polizia kidegoak ondoko oinarritzko irizpide hauen arabera eratuko dira:

a) Dagozkien lana segurtasunaren arloko eskumena esleiturik duten agintari publikoen ardurapean egiten dute. Dena den, polizia zerbitzuak dagozkien eginkizunetan jarduteko behar adinako autonomia izanen du eta erabateko erantzukizuna izanen du horien gainean.

b) Aginte kate bat behar bezala mugatua izan beharko du. Kidegoko kide guztiek, beren hierarkia

maila edozein dela ere, beren egintzen, ez-egiteen eta menpekoei ematen dizkieten aginduen erantzule izan beharko dute.

c) Polizia kideen eta herritarren arteko harremanak onak izateko lan egiten dute, segurtasun publikoaren arloko zerbitzuak ematen dituzten profesionalak baitira, eta herritarrengandik ahalik eta hurbilen egoten saiatuko dira, herritarren eta polizia arteko komunikazioa eta elkar-ulertzea sustatzeko.

d) Maila guztietako kideen hautapena zerbitzuaren helburuak betetzeko dituzten gaitasunetan oinarrituz egiten da, irizpide objektibo eta ez-baztertzailerei jarraikiz, kidegoko langileek gizarteari bere zerbitzura daudela erakusteko. Langile horiek lanean jarduteko behar den oinarritzko prestakuntza jasoko dute, eta horren ondotik etengabeko prestakuntza eta prestakuntza espezializatua, eta, behar izanez gero, baita aginterako eta kudeaketarako prestakuntza ere.

e) Kideei dagozkien eskubideak aitortuko zaizkie eta foru lege honetan eta aplikagarri diren gainerako arauetan ezartzen diren eginkizunak betetzeko eskatuko zaie.

f) Kideen osotasuna bermatzeko eta lanean zintzo jokatzen dutela bermatzeko behar diren diziiplina neurriak hartuko dira.

6. artikulua. Egitura.

1. Nafarroako polizia kidegoak honela antolatuko dira:

a) Kidegoko burua.

b) Ondoko lan kategoria guztiak edo batzuk: Komisario nagusia, komisarioa, inspektorea, inspektoreordea, lehen mailako polizia eta polizia.

c) Udaltzain laguntzailea, udaltzaingoan kasuan.

2. Aurreko zenbakian aipatutako kategoriak hierarkikoki ordenatuak daude.

3. Kidego guztietarako, mugapen hauek ezarri dira:

a) Komisario nagusi bat ehun kideko.

b) Komisario bat berrogeita hamar kideko edo hogeita bost kidetik gorako hondarreko.

c) Inspektore bat hogeita hamar kideko edo hamabost kidetik gorako hondarreko.

d) Inspektoreorde bat hogeita hamar kideko edo hamar kidetik gorako hondarreko.

e) Lehen mailako polizia bat lau eta zazpi kideen bitarteko talde bakoitzeko edo horren honda-

rreko, administrazio bakoitzak finkatzen duen bezala.

Nafarroako Gobernuak, foru dekretu baten bidez, zifra horiek aldatzeko ahalmena izanen du, giza baliabideak hobeki antolatzeko. Udaltzaingoei dagokienez, toki entitateek eskatu ahalko dute aldaketa, betiere Nafarroako Udaltzaingoa Koordinatzeko Batzordeak adostasun txostena eman ondoren.

II. TITULUA

Nafarroako Foruzaingoa

7. artikulua. Izaera.

1. Nafarroako Foruzaingoa Nafarroako Foru Komunitateko erakunde armatua eta zibila da, egitura eta antolaketa hierarkizatuak dituena.

2. Nafarroako Foruzaingoa Nafarroako Foru Komunitateko polizia propioa, integrala eta erreferentziala da, deusetan galarazi gabe ordenamendu juridikoak udaltzaingoei eta Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoei esleitzen dizkien eskumenak.

3. Nafarroako Foruzaingoa bat bakarra da Nafarroa osorako. Beraz, beste ezein segurtasun kidegok ezin du izendapen hori erabili.

8. artikulua. Goreneko agintea.

1. Nafarroako Foruzaingoaren goreneko agintea Nafarroako Gobernuari dagokio.

2. Nafarroako Foruzaingoaren goi zuzendaritza kontseilari eskudunari dagokio.

9. artikulua. Eginkizunak.

Nafarroako Foruzaingoa eginkizun hauek izanen ditu:

a) Herritarren segurtasuna, eskubide eta askatasun publikoen erabilera baketsua eta pertsonen eta ondasunen babesa bermatzea.

b) Legeak eta Foru Komunitatearen eskumeneko arloei aplikatu beharreko gainerako xedapen orokorrak, eta, orobat, Nafarroako Foru Komunitateko organoen egintzak betetzen direla begiratzea, ikuskapenak eginez, salatuz eta nahitaez betearaziz.

c) Foru Komunitateko agintariak zaindu eta babestea.

d) Nafarroako Foru Komunitateko erakundeen eta bere entitate instrumentalen menpe dauden pertsona, eraikin eta instalazioak zaindu eta babestea.

e) Nafarroako Foru Komunitatearen eskumenekoak diren oinarritzko zerbitzu publikoen funtzionamendu egokia bermatzea.

f) Nafarroako Foru Komunitatearen lurraldean zirkulazioa antolatzea, eskumenak banatzeko Estatuarekin izenpetzen diren eta unean-unean indarra duten hitzarmenekin bat, salbu eta eskumena legez udaltzaingoa badagokio.

g) Garraioen arloan jardun eta ikuskapenak egitea, indarra duten legeetan xedatutakoarekin bat.

h) Herritarren segurtasunari eta ordenari eustea eta, bidezkoa denean, ordena bere onera ekartzea, behar diren esku-hartzeen bitartez, eta bereziki, espazio publikoak zaintzea, manifestazioak babestu eta antolatzea eta jendearen elkarretaratze handietan ordenari eustea.

i) Ondasunak eta pertsonak babestea eta haiei laguntzea, batez ere istripua dagoenean eta larrialdietan, xedapenen eta, bidezkoa denean, babes zibileko planen arabera.

j) Trafiko istripuetan atestatuak instruitzea, f) letran ezarritako eginkizunen esparruan.

k) Delituei aurrea hartzea eta delituak galarazteko behar diren eginbideak egitea.

l) Polizia judizialaren lana, legeek adierazten dituzten kasu eta moduetan.

m) Nafarroako toki entitateetako agintariekin elkarlanean aritzea eta elkarri laguntzea, baldin eta haiek eskatzen badute, aplikatzekoak diren xedapenetan ezartzen den moduan.

n) Segurtasun Indar eta Kidegoekin elkarlanean aritzea eta elkarri laguntzea, legeek ezarritako kasuetan.

o) Segurtasun Indar eta Kidego guztiekin lankidetzan aritzea polizientzat interesgarria den informazioa biltzen, tratatzen eta elkarri ematen.

p) Nafarroako Foru Komunitatearen esparruan aritzen diren segurtasun pribatuko enpresak ikuskatzea eta haien zerbitzu, jarduketa, baliabide eta langileak kontrolatzea, indarreko legeetan ezarrita dagoenari jarraikiz.

q) Gatazka pribatuak adiskidetasunez konponatzen laguntzea, horretarako laguntza eskatzen zaienean.

r) Legeek esleitzen dizkion gainerako eginkizunak, eta zehazki, legeek autonomia erkidegoetako segurtasun kidegoei esleitzen dizkietenak.

10. artikulua. Aginte operatiboa.

Ekintzei dagokienez, Nafarroako Foruzaingoa foruzainburuaren menpean egonen da.

11. artikulua. Uniformea, ezaugarriak, kredentzialak, agurrak eta ohoreak.

1. Nafarroako Foruzaingoko kideek, lanean dihardutela, uniformea jantziko dute beti. Kontseilari eskudunak, zerbitzuak hala eskatzen duenean, Foruzaingoko kide edo unitate jakin batzuek uniformeak jantzi gabe jarduteko baimena emanen du. Nolanahi ere, laneko identifikazioa eraman behar dute.

2. Foru agindu bidez, kontseilari eskudunak uniformeari, ezaugarriei, kredentzialesi, agurrei eta ohoreei buruzko arauak emanen ditu. Era berean, poliziaen bulegoetan, ibilgailuetan eta baliabide ibiltarrietan erabili beharreko adierazgarriak arautuko dira.

12. artikulua. Armak.

Kontseilari eskudunak Nafarroako Foruzaingoko kideen armak erabiltzeko araubidea emanen du, aplikagarria den estatuko legedia errespetatuz.

13. artikulua. Polizia judiziala.

1. Nafarroako Foruzaingoko kideek antolamendu juridikoak polizia judizialaren arloan esleitzen dizkien eginkizun orokorrak egingen dituzte eta, bidezko bideak erabiliz, agintari judizialek edo Ministerio Fiskalak eskatzen duten lankidetzak emanen dute, delituak ikertzeko edo gaizkileak aurkitu edo harrapatzeko asmoz.

2. Kontseilari eskudunak, Foruzaingoa egi-tura organikoaren barruan, polizia judizialaren arloko eginkizunak izanen dituzten unitateak arautzen ahalko ditu, eta epaitegiei edo auzitegiei edo Ministerio Fiskalari atxikitzen ahalko dizkie. Horrelakoak sortzeko, delituen espezializazioaren gaineko irizpideak aintzat hartzen ahalko ditu.

3. Polizia judizialeko eginkizun espezializatuetan aritzeko, dagokion diploma behar da, Nafarroako Segurtasun Eskolak edo baliokide batek emana, espezializazio ikastaroa edo azterketa gainditu ondoren.

4. Polizia judizialeko unitateei atxikitako kideak ikertzen ari den auziaren ardura duen epailearen, epaitegiaren edo Ministerio Fiskalaren menpe egonen dira, eginkizunei dagokienez.

5. Polizia judizialeko unitateetako kideak ezin izanen dira aginduta duten ikerkuntza lanetik baztertu edo bereizi, salbu eta Botere Judizialari buruzko Lege Organikoan eta aplikatzekoak diren gainerako arauetan ezarrita dauden kasuetan.

6. Polizia judizialeko unitateetan sartzen diren kideen araubidea foru lege honetan ezarritakoa izanen da eta, oro har, Nafarroako Foruzaingoa gainerako kideei aplikatzekoa.

III. TITULUA**Udaltzaingoen koordinazioa****I. KAPITULUA****Xedapen orokorrak****14. artikulua.** Udaltzaingoak sortzea.

1. Bost mila bizilagun eskubidedun edo gehiago dituzten Nafarroako udalek beren Udaltzaingoak sortzen ahalko dituzte.

2. Nafarroako Gobernuak baimena eman dezake aurreko zenbakian adierazitako baldintza betetzen ez duten toki entitateen udaltzaingoak eratze-ko, herritarren segurtasuna dela-eta beharrezkoa edo egokia denean.

3. Toki entitate bakoitzean udaltzaingo bakarra izanen da.

15. artikulua. Eginkizunak.

Nafarroako Udaltzaingoak, toki entitateko alkaterearen edo buruaren goi agintearen pean, Toki Administrazioari buruzko legedian eta Segurtasun Indar eta Kidegoei buruzko arauetan ezarritakoari jarraikiz arituko dira.

16. artikulua. Udaltzain laguntzaileak.

1. Udaltzaingoa duten toki entitateek zilegi izanen dute administrazio araubidean aldi baterako langileak kontratatzea, udaltzain laguntzailearen izenarekin, udaltzainen eginkizunen eraginkortasuna helburu, plantilla organikoari udaltzainen absentismoak edo aldi baterako hutsik dauden lanpostuen kopuruak eragiten dionean, lanpostu hutsak betetzeko edo segurtasun publikoaren arloan gertatzen diren salbuespenezko edo behin-behineko beharrei kasu egiteko.

2. Udaltzain laguntzaileek kidegoko funtzionarioei laguntzeko lanak beteko dituzte, eta haien zuzendaritzapean arituko dira, agintaritzako agenteen izarekin.

3. Udaltzain laguntzaileek behar bezala identifikatzeko moduko ezaugarriak eramanen dituzte aldean eta behar den dokumentazioaren bidez frogatuko dute udaltzain izaera. Ez dute sekula eramanen su-armarik.

4. Kontratazioa egiteko orduan, Nafarroako Segurtasun Eskolak berariaz ematen duen udaltzain laguntzailearen gaikuntza ez dutenak ezin izanen dira kontratatu udaltzain laguntzaile gisa

aritzeko. Eskolak gaikuntza emanen die propio prestatzen diren berariak gainditzen dituztenei bakar-bakarrik. Gaikuntza lortzeko bi bide daude: Eskolak aldi behin egiten dituen deialdi publiko berariazkoak edo toki entitateak sustatzen duen hautapen prozesua. Gaikuntzak bost urterako baliko du.

5. Toki entitateak sustatutako hautapen prozesuetan izangaiek gaitasun fisikoa ebaluatzeko azterketa bat eta jakintza tekniko eta juridiko orokorra neurtzeko azterketa bat gainditu beharko dituzte, eta horrela aurreikusiz gero, baita bidezko diren proba psikoteknikoak ere.

6. Udaltzain laguntzaile baten kontratazioa plantilla organikoa udaltzain lanpostu huts dagoelako egiten denean, toki entitateak lanpostu hori behin betikoz betetzeko deialdia kontratazioa egin eta gehienez urtebeteko epean egin beharko du. Eskaini ezean, urtebeteko epea betetzen den egun berean administrazio kontratua iraungiko da zuzenean, eta toki entitateak behar den likidazioa egin beharko dio.

7. Artikulu honetan aipatzen diren langileei aplikatu beharreko araubidea Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileriaren Estatutuan administrazio araubidean kontratatzen diren langileentzat ezarritakoa izanen da, foru lege honetan ezarritako salbuespenekin, eta Estatutu horretako D mailan sartuko da.

17. artikulua. Albienteak.

1. Udaltzaingorik ez duten toki entitateek zilegi dute 3. idatz-zatian aipatzen diren eginkizunak, eskusibotasunez edo polizia arlokoak ez diren beste batzuekin batera, zaindari, zaintzaile, agente, gauzain, albiente edo antzeko izendapena duten funtzionario publikoei esleitzea. Langile horien multzoak "albienteak" izen generikoa hartuko du eta Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileriaren Estatutuaren C mailan sartuko dira.

2. Albienteak, armak dituztela edo ez, beren eginkizunetan dihardutenean, agintaritzaren agintzat joko dira eta horixe frogatuko dute behar diren agirien eta ezaugarrien bidez.

3. Albienteek, polizia arlotik kanpora dituzten eginkizunetaz gain, hauek betetzen ahalko dituzte:

- a) Udalaren ondasun, zerbitzu, instalazio eta bulegoak zaindu eta begiratzea.
- b) Herrigunean zirkulazioa antolatzea, zirkulazio arauekin bat.
- c) Herritarrei lagundu eta babes zibileko lanetan parte hartzea, legeetan xedatutakoarekin bat.

d) Udalaren erregelamendu, ordenantza, bando eta ebazpenak betearaztea, baita gainerako xedapen eta egintzak ere.

e) Espazio publikoak zaintzea eta jaialdi, kultur ekitaldi eta antzeko elkarretaratze handietan ordenari eusten laguntzea Foruzaingoari.

f) Gatazka pribatuak konpontzen laguntzea, horretarako laguntza eskatzen zaionean.

g) Segurtasun Indar eta Kidegoei uneoro laguntzea.

4. Albienteen araubidea Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileriaren Estatutuan ezarritakoa izanen da, salbu eta foru lege honetan haien zehazten diren kontuetan.

5. Albiente lanpostuetan sartzeko hautaprobeetan onartua izateko, foru lege honen 28. artikuluan foruzain lanposturako eskatzen diren betebeharrak eta baldintzak bete beharko dira. Albienteak hautatzeko prozeduran, izendatuak izan aitzin, ezinbesteko betebeharrak gisa, prestakuntzarako berariazko ikastaro bat gainditu beharko dute Nafarroako Segurtasun Eskolan.

6. Toki entitate batek udaltzaingoa eratzen duenean, plantilla organikoan poliziarik dagozkion eginkizunak betetzen dituzten zaindari, zaintzaile, agente, albiente, gauzain edo antzeko lanpostuak baditu, langile horiek kidego berrian sartuko ditu, ondoko arau hauei jarraikiz:

a) Polizia eginkizunak besterik ez badute, zuzenean sartuko dira udaltzaingoan, udaltzain gisa, eta jatorrizko plaza amortizatu egiten da.

b) Polizia eginkizunetaz gain, beste lan batzuk esleituak bazituzten, toki entitateak erabakiko du zein lanpostu sartzeko diren Udaltzaingoan (udaltzain gisa) eta zein birmoldatzen diren polizia eginkizunetaz gabe uzteko. Lanpostu birmoldaketarekin batera, lanpostua maila baxuagoko batean sailkatzen bada, funtzionarioari lehengo maila gordeko zaio, iraungi beharreko egoera pertsonal gisara.

c) Udaltzain lanpostuak aipatutako funtzionarioen arteko merezimendu lehiaketa bidez beteko dira. Dena dela, merezimendu lehiaketan egiten den lanpostu birmoldatuen esleipenean parte-hartzaile guztien asmoak asetzen ez badira, funtzionario horiek gero batean sortzen diren horrelako lanpostu hutsak eskuratzeko eskubidea izanen dute, baina behin bakarrik.

d) Integrazio prozesuaren barrenean, Nafarroako Segurtasun Eskolan prestakuntza ikastaro bat egitea eskatuko da. Lehenagotik egindako ikastaroak baliozkotzen ahalko dira, osorik edo partez,

Eskolak edukiak balio berekoak direla erabakiz gero.

18. artikulua. Hautatzeko irizpide komunak.

1. Toki entitate batek bidezko erabakiaren bidez borondatez eskatuta, arlo horretako departamentu eskudunak onetsiz gero, toki entitateak bere menpeko udaltzaingoan sartzeko deialdiak eta hautapen prozedurak onesten ahalko ditu, bai albiente gisa sartzeko, bai udaltzain laguntzaileak kontratazeko. Hori helburu, zilegi izanen da deialdiak udal-erri baterako baino gehiagotarako berdinak izatea, Foruzaingoan sartzeko deialdiekin batera egitea edo horietan integratzea.

2. Deialdi komun batean parte hartzen dutenei dagozkien lanpostuak interesatuen nahien arabera esleituko dira, hautapen probetan lortutako ordenaren arabera.

II. KAPITULUA Antolamendua

19. artikulua. Antolamenduaren erregelamendua.

Udaltzaingoa duten toki entitateek hura antolatzeko erregelamendua prestatuko dute. Horretan kategoriak edo mailak eta kidegoko unitateak agertuko dira.

20. artikulua. Aginte operatiboa.

1. Udaltzaingoaren aginte operatiboa udaltzainburuak izanen du.

2. Toki entitateko alkateak edo buruak izendatuko du udaltzainburua.

21. artikulua. Uniformea, ezaugarriak, armak eta kredentzialak.

1. Udaltzaingoetako kideek, lanean dihardutela, uniformea jantziko dute beti. Zerbitzua dela-eta beharrezkoa bada, toki entitateko alkateak edo buruak baimena emanen die kide batzuei beren eginkizunetan uniformea jantzi gabe aritzeko.

2. Toki entitateek ahalmena dute uniformeari, kredentzialei, ezaugarriari eta, bidezko bada, agurrei buruzko arau berariazkoak emateko, Udaltzaingoaren Koordinazio Batzordeak txostena eman ondoren Nafarroako Gobernuak ezartzen dituen xedapen orokorrei jarraikiz.

3. Udaltzaingoetako kideek, beren eginkizunetan dihardutela, erregelamenduen bidez ezartzen diren armak eramanen dituzte.

4. Armak aplikatzeko den legedi orokorrean xedatutakoari jarraituz erabiliko dira.

IV. TITULUA Nafarroako polizia kidegoetako langileen estatutua

I. KAPITULUA Xedapen orokorrak

22. artikulua. Plantilla organikoak.

1. Udaltzaingoa duten Nafarroako Administrazio Publikoek beren plantilla organikoan sartuko dituzte kidego horretan dauden langileen lanpostuak.

2. Nafarroako Gobernuari dagokio Nafarroako Foruzaingoko plantilla onetsi eta kidego hori osatzen duten lanpostuak zehaztea.

3. Udaltzaingoak osatzen dituzten lanpostuak zehaztu eta haien plantillak onestea udalaren osoko bilkurari edo toki administrazioaren gaineko legedian ezartzen den organoari dagokio.

23. artikulua. Funtzionario izaera.

Polizia kidegoetako kideek kasuan kasuko Administrazio Publikoko funtzionario izaera izanen dute, buruak eta udaltzain laguntzaileak izan ezik.

II. KAPITULUA Polizia Kidegoko burua

24. artikulua. Araubide juridikoa.

1. Polizia kidegoetako burua aldi baterako kargua da, izendapen librekoa. Izendapena eta kargu-uztea Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu behar dira.

2. Foruzainburua izendatzea eta kargutik kentzea Nafarroako Gobernuari dagokio, kontseilari eskudunak proposaturik.

Zuzendari nagusiaren menpekotasun organiko eta funtzionala deusetan galarazi gabe, foruzainburua Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio goi kargutzat hartuko da eta zuzendari nagusiaren araubide juridikoa aplikatuko zaie.

25. artikulua. Bateriaezintasuna.

Polizia kidegoko buruaren kargua bateraezina da Administrazio Publikoaren beste edozeinekin, baita beste edozein lan, merkataritzako jarduera edo lanbiderekin ere.

III. KAPITULUA Nafarroako polizia kidegoetako funtzionarioak

1. atala Hautapena

26. artikulua. Deialdi publikoa.

1. Nafarroako polizia kidegoetan funtzionario gisa sartzeko izangaien hautapena deialdi publiko-

an iragarri beharreko oposizio bidez edo oposizio-lehiaketa bidez eginen da, publikotasun, merezimendu eta gaitasun irizpideei jarraituz.

2. Hautapena deialdiko araei jarraikiz eginen da eta horien edukia erregelamenduz zehaztuko da. Deialdiak eta haien arauak Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira eta Administrazioak, hautaprobetako epaimahaikideek eta parte-har-tzaile guztiek bete beharko dituzte.

27. artikulua. Hautaprobak.

1. Hautaprobak teorikoak eta praktikoak izanen dira eta, horien artean, gaitasun fisikoa neurtzeko proba bat, proba psikoteknikoak eta jakite-mailakoak sartuko dira.

2. Hautaprobaren artean, betiere, prestakuntza ikastaro bat egonen da, Nafarroako Segurtasun Eskolak emana. Nafarroako polizia kidegoetako funtzionario bihurtzeko nahitaezko betebeharra izanen da ikastaro hori gainditzea.

3. Aurreko idatz-zatian aurreikusitako ondorio-erako, izangaiak deialdiak eskatu eta Nafarroako Segurtasun Eskolak antolatutako ikastaroaren baliokide den beste bat gainditua badu, aski izanen du Nafarroako Segurtasun Eskolak ikastaroa bali-ozkotzea; ikastaroa baliokidea dela frogatzeko, ikastaroen edukiak berdinak edo baliokideak direla egiaztatzen duen agiri ofiziala, interesatuak eskatuta Eskolak emanen duena, eta baliozkotutako ikastaroan edo ikastaroetan lortutako notak.

28. artikulua. Baldintzak.

1. Nafarroako polizia kidegoetako lanpostuetan edo funtzionario gisa sartzeko hautaprobetan onartua izateko, baldintza hauek bete beharko dira:

- a) Nazionalitatez espainiarra izatea.
- b) Adinez nagusia izatea eta deialdian ezarritako adina ez gainditzea.
- c) Lanbiderako eskatzen den ikasketa titulua edo kategoria izatea.

Hala ere, polizia gisa sartzeko nahiko izanen da eskola graduatua, lehen mailako lanbide heziketa edo baliokidea izatea, halako moduz non, sartzeko prestakuntza ikastaroa, Segurtasun Eskolak emanikoa, gaindituta, teknikoki baliokideak izanen baitira oinarrizko ikastaro hori eta batxilergoa, bigarren mailako lanbide heziketa edo horien baliokidea; baliokidetasun hori, hala ere, ondorio administratiboetarako baizik ez da izanen, hau da, polizia kidegoko albiente edo C mailako funtzionario izendatzeko, eta ez du baliorik izanen ez arlo akademikoan, ez irakaskuntzaren edo hez-

kuntzaren arloan, ez eta Administrazioaren beste esparru batzuetako maila horretako lanpostuak betetzeko ere.

d) Eginkizunak betetzeko behar den gaitasun fisikoa eta psikikoa izatea eta arlo honetan eskumena duen kontseilariaren foru aginduaren bidez onartuko den baztertzeko arrazoi medikoen taulan ez egotea.

e) Deialdian ezartzen den gutxieneko garaiera izatea.

f) Doluzko delitu bat dela kausa kondenatua ez izatea, ez eta administrazio publiko baten zerbitzuetik baztertua ere, eta eginkizun publikoetan aritze-ko desgaitua edo gabetua ez izatea, deusetan galarazi gabe errehabilitazioaren onura aplikatzea, zigor eta administrazio arloetako araei jarraikiz.

g) Deialdian aipatzen den ibilgailu mota gidatzeko baimena edukitzea.

2. Betebeharrak hauek eskabideak aurkezteko epea bukatu baino lehen bete behar dira, g) idatz-zatikoa izan ezik, prestakuntza ikastaroan onarturiko hautagaien zerrenda argitaratzen den egunean bete beharko baita.

29. artikulua. Ikasketa tituluak.

1. Aurreko artikuluko 1. zenbakiko c) letran eta barne-igoera eta lanbide karrera arautzen duten aginduetan xedatutakoa galarazi gabe, Nafarroako polizia kidegoetako kategorietan sartzeko eskatuko den ikasketa titulua 33. artikuluan ezarritako maila dagokiena izanen da.

2. Nafarroako polizia kidegoetako plantillako langileek, barne igoerarako, eskatutako tituluaren ordean aurreko kategorian emandako urteak aurkeztu ahalko dituzte, foru lege honetan ezarritakoaren arabera.

30. artikulua. Kategorietan sartzea.

1. Polizia kategorian hasteko, polizia kidegoetan sartzeko hautaprobak gainditu beharko dira.

Hori horrela izanik ere, udaltzaingoa duten toki entitateek lanpostu hutsen %30 erreserbatzen ahalko dituzte beste udaltzaingo batzuetako funtzionarioen arteko oposizio-lehiaketa bidez betetzeko. Horrelako izangaiei azkeneko udaltzaingoan bost urteko zerbitzualdia benetan eginga izatea eskatuko zaie. Funtzionario horiei Nafarroako Segurtasun Eskolako prestakuntza ikastaroa bali-ozkotzeari dagokionez 27. artikuluko 3. zenbakian ezarritakoa aplikatuko zaie. Txanda horretan betetzen ez diren lanpostuak txanda irekiko lanpostuei gehituko zaizkie.

2. Lehen mailako polizia lanpostu hutsak polizia kategorian dutenen barne-igoeraren bidez beteko dira. Horretarako, merezimendu lehiaketa egiten da, eta izangaiek lanpostuaren edukiari eta eginkizunei buruzko proba praktikoa bat, baztertzailerik, egin dezaten eskatu ahal da; horrez gain Nafarroako Segurtasun Eskolak kategorian horretarako emanen duen prestakuntza ikastaroa gainditu beharko dute izangaiek. Lehiaketa horretan parte hartzeko, hiru urteko edo gehiagoko antzintasuna eskatuko da polizia kategorian.

3. Inspektoreorde lanpostu hutsak lehen mailako polizia kategorian dutenen barne-igoeraren bidez beteko dira. Horretarako, oposizio-lehiaketa egiten da eta izangaiek Nafarroako Segurtasun Eskolak kategorian horretarako emanen duen prestakuntza ikastaroa gainditu beharko dute. Oposizio-lehiaketa horretan parte hartzeko, lehen mailako polizia kategorian hiru urteko edo gehiagoko antzintasuna eskatuko da eta, orobat, B mailari dagokion ikasketa titulua. Titulurik ez badute, kategorian hartan bost urteko edo gehiagoko antzintasuna izatea.

4. Aurreko bi idatz-zatietan aipatzen diren lanpostu hutsak betetzeko deialdian, polizia kidegoko kideentzako barne igoerarako txanda bat ezarriko da, eta beste txanda bat gainerako lanpostu hutsak, ezarritako betebeharrak betetzen dituzten Nafarroako polizia kidegoko kide guztientzat irekia. Txanda irekian betetzen ez diren lanpostuak barne igoerarako txandari gehituko zaizkie. Idatz-zati honen aplikazioaren ondorioetarako, hiru lanpostu hutsak lehendabizikoa eta hirugarrena barne igoera txandakoa izanen dira eta bigarrena txanda irekikoa.

5. Inspektoreorde kategorian sartzeko prozedura hau erabiliko da:

a) Kategorian horretako lanpostuen %60 barne-igoeraren bidez beteko dira, Nafarroako polizia kidegoko inspektoreordeen arteko merezimendu lehiaketa eginda. Izangaiei hiru urteko edo gehiagoko antzintasuna eskatuko zaie sarjentu kategorian eta, orobat, bidezko titulazioa. Titulurik ezean, kategorian horretan bost urteko edo gehiagoko antzintasuna beharko dute.

b) Lanpostu hutsen %20 Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoko, Indar Armatuetako eta autonomia erkidegoko polizia kidegoko ofizialordeen eta asimilatuen arteko merezimendu lehiaketa bidez bete ahal da. Izangaiei hiru urteko antzintasuna eskatuko zaie abiapuntuko kategorian eta behar den titulazioaren jabe izan beharko dute Prozedura hori gauzatzen ez bada,

lanpostuak barne igoeraren txandari gehituko zaizkie.

c) Lanpostu hutsen %20 oposizio-lehiaketa edo oposizio irekiaren bidez beteko dira, deialdian eskatzen den titulazioa eta gainerako betebeharrak betetzen dituzten izangaien artean.

d) Zenbaki honetako b) eta c) letretan aipatutako txanden bidez betetzen ez diren lanpostu hutsak barne-igoeraren bidez beteko dira.

Aurreko a) eta b) letretan zehaztutako merezimendu lehiaketetan lanpostuaren edukiari eta eginkizunei buruzko proba praktikoa bat sartu ahal da, baztertzailerik izan dena. Horrez gain, zenbaki honetan adierazitako kasu guztietan, merezimendu lehiaketaren fasea gainditzeko duten izangaiek kategorian horretarako prestakuntza gaitasun ikastaro bat gainditu beharko dute, Nafarroako Segurtasun Eskolak emanen duena.

6. Komisario lanpostuak barne-igoeraren bidez beteko dira, Nafarroako polizia kidegoko inspektoreen arteko oposizio-lehiaketa eginez. Izangaiei hiru urteko edo gehiagoko antzintasuna eskatuko zaie inspektoreorde kategorian eta behar den titulazioaren jabe izan beharko dute. Inspektore kategorian horretan bost urteko edo gehiagoko antzintasuna izanez gero, ez du eskatutako ikasketa titulua aurkeztu beharrik izanen.

Aurrekoa gorabehera, lanpostu hutsen %30 deialdian eskatzen den titulazioaren jabe diren Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoko eta Indar Armatuetako ofizialentzat eta agintarientzat erreserbatuko dira. Txanda horretan betetzen ez diren lanpostu hutsak beste txandakoei gehituko zaizkie.

Kasu guztietan, merezimendu lehiaketaren fasea gainditzeko duten izangaiek kategorian horretarako gaitasun ikastaro bat gainditu beharko dute, Nafarroako Segurtasun Eskolak emanen duena.

7. Komisario nagusiaren kategoriako lanpostu hutsak betetzeko, Nafarroako polizia kidegoko komisarioentzako oposizio-lehiaketa murriztua egiten da. Izangaiei hiru urteko edo gehiagoko antzintasuna eskatuko zaie inspektore kategorian eta, orobat, eskatzen den ikasketa titulua eduki beharko dute. Nolanahi ere, kategorian horretarako gaitasun ikastaro bat gainditu beharko dute, Nafarroako Segurtasun Eskolak emana.

8. Ikasketa titularen ordean antzintasuna baliatzeko aukera behin bakarrik erabiliko da lanbide karrera osoan.

9. Deialdi batean parte hartzen dutenei dagozkien lanpostuen esleipena interesatuen nahien arabera eginen da, hautaprobetan lortutako ordenaren arabera. Artikulu honetako 5. eta 6. idatzatietan adierazitako kasuetan, barne-igoerako txandatik datozen izangaiek lehentasuna izanen dute Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoetatik, Indar Armatuetatik eta autonomia erkidegoetako polizia kidegoetatik datozenen aurretik, eta azken horiek gainerako izangaiei aurretik.

10. Kategoria bat eskuratzeak es dakar inolaz ere lanpostu edo destino jakin batean aritzeko eskubiderik, ez eta zerbitzua toki edo arlo jakin batean emateko inolako aurreikuspenik, ez bada kategoria horri berez dagozkion eginkizun orokorretan.

2. atala

Nafarroako polizia kidegoetako funtzionario izaera eskuratu eta galtzea

31. artikulua. Araubide orokorra.

Nafarroako polizia kidegoetako funtzionario izaera eskuratu eta galtzeko moduari dagokionez, Nafarroako Administrazio Publikoetako beste funtzionarioentzako xedapen orokorretan ezarritako arau berberei jarraituko zaie, hurrengo artikuluan xedatzen dena deusetan galarazi gabe.

32. artikulua. Praktiketako funtzionarioak.

1. Nafarroako polizia kidegoetako polizia, inspektore edo Komisario kategorietan sartzeko Nafarroako Segurtasun Eskolak ematen duen prestakuntza ikastaroa egitera onartzen diren izangaiek, ikastaroa egin bitartean eta, gaindituz gero, administrazioak behin betiko lanpostuaren jabetza hartzeko finkatzen duen egunera arte, praktiketako funtzionarioak izanen dira.

2. Funtzionarioen izendapena egin behar duen administrazioak Nafarroako Administrazio Publikoetako funtzionarioen C, B edo A maileri dagozkien oinarritzko ordainsariak ordainduko dizkie praktiketako funtzionarioei, zein kategoriatan sartzen diren (polizia, inspektore edo komisario, hurrenez hurren).

3. Erregelamendu bidez egoera horri dagozkion baldintza, eskubide eta betebeharrak arautuko dira.

3. atala Mailak

33. artikulua. Mailak.

Nafarroako polizia kidegoetako funtzionarioak Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko

Langileriaren Estatutuan ezarritako maila hauetako batean sartuko dira:

- a) Komisario nagusia eta komisarioa, A mailan.
- b) Inspektorea eta inspektoreordea, B mailan.
- c) Polizia nagusia eta polizia, C mailan.

4. atala Prestakuntza

34. artikulua. Nafarroako Segurtasun Eskola

1. Nafarroako Segurtasun Eskola Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren menpe dago eta haren helburua, besteak beste, Nafarroako polizia kidegoetako kideak, albienteak eta udaltzain laguntzaileak hautatzeko prozesuan parte hartu eta langile horiei prestakuntza ematea da.

2. Nafarroako Segurtasun Eskolaren eginkizunak, antolaketa eta funtzionamendua erregelamendu bidez ezarriko dira. Erregelamenduan, gainera, prestakuntza ikastaroko ikasleen araubidea ezarriko da eta bertan ikasleen eskubide eta betebeharrak finkatuko dira, besteak beste.

3. Nafarroako Segurtasun Eskolaren eginkizunen artean eginkizun berberak edo antzekoak dituzten erakunde publikoek emandako ikastaro eta diplomak osorik edo partez baliozkotzea izanen da, baita eskolak berak lehenago emandakoak ere, betiere edukiak berdinak badira. Horrelakotan, behar den puntuazioa esleituko zaio tituluari.

5. atala Lanbide sustapena

35. artikulua. Barne-igoera.

1. Nafarroako polizia kidegoetako funtzionarioen gora egiteko modua bitakoa da: kategoriaz igotzea, 30. artikuluan ezartzen diren prozeduren bitartez, edo graduz igotzea, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileriaren Estatutuan ezarrita dauden arau orokorretan agindutakoaren bidez.

2. Nafarroako polizia kidegoetako kideek Nafarroako Administrazio Publikoetako funtzionarioentzako igoera txandako prozeduretan parte hartzen ahalko dute, baina egiazki zortzi zerbitzu-urte ematen dituztenetik aurrera.

3. Foru lege honetan adierazitako kasuez aparte, Nafarroako polizia kidegoetako kideek ezin izanen dute parte hartu poliziaren lanbide izaera edo polizia lanpostua galdu edo aldatzea dakarten lanpostuetarako lekualdatzetean.

36. artikulua. Destinoen banaketa.

1. Polizia kidegoetan destinoen banaketa kasuan kasuko erregelamenduan ezartzen denari jarraikiz eginen da, plantilla organikoan finkatzen diren betebeharren arabera.

2. Nafarroako Foruzaingoaren kasuan, haren erregelamendu organikoa onestea Nafarroako Gobernuari dagokio. Dena dela, kontseilari eskudunak unitate organiko bakoitzean lanpostuak betetzeko aplikatu beharreko sistema ezartzen ahalko du eta destino jakin batzuetara jotzeko eskatzen diren baldintzak finkatu.

6. atala**Egoera administratiboak****37. artikulua.** Egoera administratiboak.

Nafarroako polizia kidegoetako funtzionarioen egoera administratiboak Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileriaren Estatutuari buruzko arau orokorretan ezarritakoari jarraituz arautuko dira, deusetan galarazi gabe hurrengo artikuluan ezartzen dena.

38. artikulua. Bigarren jarduera.

1. Hauxe da bigarren jardueraren helburua: Nafarroako polizia kidegoan jardunean dauden langileen eraginkortasuna bermatzea eta lanbide karrera denboraren joanean edo gaitasun fisikoak edo psikikoak ustekabeen murriztean gertatzen diren aldaketetara egokitzea.

2. Adin batera iritsita (betiere berrogeita hamabost urtetik gora), edo gaitasun fisikoak edo psikikoak murrizten diren kasuetan, Nafarroako polizia kidegoetako kideei beste destino bat ematen ahalko zaie, interesatuak eskatuta edo ofizioz, erretiroa hartu aurretik ondoko batean bigarren jardueran aritzeko:

a) Kidegoan berean.

b) Nafarroako beste polizia batzuetan, betiere bi administrazioek bidezko lankidetzaz hitzarmena sinatu badute.

c) Administrazio bereko beste lanpostu batean, segurtasun arloko politikekin edo polizia administratiboko jarduerekin (adierarik zabalenean) zerikusi zuzena duena, administrazio horren eskumenean esparruan, konparazio batera, zehapen espedienteen tramitazioetan laguntzea, lan administratibo edo exekutiboak, zaintza, kontrola, ikuskapenak eta bestelakoak, betiere langilearen mailarentzat eta jakintzarentzat egokiak badira eta ahalegin fisiko, arrisku edo zailtasun gutxiagokoak badira.

3. Bigarren jarduerara igarotzea zerbitzu beharren menpe egonen da eta, igaro aurretik, bereziki egoera horretan bete behar diren lanpostuak finkatu beharko dira.

4. Erregelamenduz finkatuko da bigarren jarduerako zerbitzuak noiz eta nola eman behar diren, bai eta egoera horretara igarotzea ekar dezaketen ezgaitasun medikoen maila ere.

5. Bigarren jarduerako egoeran dauden Nafarroako polizia kidegoetako kideek, beren kategoriarik dagozkion oinarrizko ordainsariak eta aitorturik dituzten ordainsari pertsonalak jasoko dituzte, egiazki betetzen duten lanpostuak dituen osagarriez gainera

Dena dela, bigarren jarduerara igarotzea Administrazioak ofizioz agindu badu uste duelako lanbidean aritzearen ondorioz langilearen gaitasun fisiko edo psikikoa nabarmen jaitsi dela, eta lanpostu berriaren oinarrizko ordainsariak eta osagarriak egoera horretara igaro zen unean bestean jasotzen zituenak baino baxuagoak badira, funtzionarioak aldi baterako osagarri pertsonala jasotzeko eskubidea izanen du, bi ordainsarien arteko aldea adinakoa.

6. Bigarren egoeran emandako denbora, antzinatearen eta eskubide pasiboen ondorioetarako, egoera horretara igaro aurretik zuen lanpostuana emana balitz bezala konputatuko da.

7. Bigarren jardueran dagoen funtzionarioak ezin izanen du kategoriaz igotzeko prozesuetan parte hartu.

39. artikulua. Gaitasun fisikoak edo psikikoak murriztu direla deklaratzeko.

1. Zerbitzua ohi bezala egitea galarazten duen gaitasun fisiko edo psikikoen murrizketa Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren epaitegi mediko batek adieraziko du, ofizioz edo alderdi batek eskatuta.

2. Epaimahaiak irizpen medikoa prestatu eta organo eskudunari igorriko dio, behar den ebazpena eman dezan.

7. atala**Eskubideak eta eginbeharrak**

40. artikulua. Araubide orokorra eta espezialitateak.

Nafarroako polizia kidegoetako funtzionarioen eskubide eta eginbeharrak Nafarroako Administrazio Publikoen menpeko Langileriaren Estatutuari buruzko arauetan ezarritakoak izanen dira, foru lege honen ondoriozko berezitasunekin, hauekin bereziki:

a) Zin egitea edo hitz ematea Konstituzioari, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoari eta legeei men egiten diela.

b) Foru lege honen 4. artikuluan ezarritako oinarritzko jarduketa printzipioen ondoriozko eginkizunak betetzea.

c) Beren interesak defendatze aldera, sindikatuetan afiliatzeko eskubidea izanen dute eta, orobat, sindikatuetatik atera eta beste erakunde batzuk sortzeko, betiere askatasun sindikalari buruzko legediak ezarritako baldintzak betez gero.

d) Grebarako eskubidea Segurtasun Indar eta Kidegoentzat eskubide horren gainean ezarrita dauden xedapenen arabera erabiliko da.

e) Lanaldia eta oporrak eta baimenak hartzeko berariazko modua erregelamendu bidez xedatuko dira. Nolanahi ere, polizia lanak dituen ezaugarri berezien menpe eta segurtasun publikoaren eta babes zibilaren arloan dauden beharren edo larrialdietan eman beharreko laguntzaren menpe egonen dira. Lanaldia eguneko edo gaueko txanda edo guardietan banatzen ahalko da, eta jaiegunetan lan egin beharra ezar daiteke.

f) Ordainsarien kontzeptuak eta zenbatekoak hurrengo artikuluetan xedatutakoari jarraituko zaizkio.

g) Beren eginkizunetan egindakoengatik erantzukizuna eskatzen zaien auzi guztietan, atxikita duen administrazio publikoak izendatutako profesionalak ordezkatu eta aldezteko eskubidea izanen dute, administrazioaren kontura.

h) Non diren jakiteko biderik zuzenena jakinarazi beharko diote Administrazioari.

i) Polizia izateagatik kalte pertsonal edo materialak jasanez gero, erregelamenduz ezarriko den kalte-ordainen sistemaren onuradun izateko eskubidea izanen dute.

41. artikulua. Ordainsariak.

1. Nafarroako polizia kidegoetako funtzionarioek ondoko kontzeptu hauei dagozkien ordainsariak jasoko dituzte, ez besterik:

A) Bakoitzaren oinarritzko ordainsariak:

a) Mailari dagokion hasierako soldata.

b) Graduari dagokion ordainsaria.

c) Antzinasun saria.

B) Ordainsari osagarriak:

a) Berariazko osagarria.

b) Lanpostuaren osagarria.

c) Aldi baterako osagarri pertsonala bigarren jardueran aritzeagatik.

C) Bestelako ordainsariak:

a) Zerbitzuan izandako gastuen kalte-ordaina.

b) Egindako bidaien kalte-ordaina.

c) Bizilekua aldatzea dakarren nahitaezko lekualdatzeagatik ematen den kalte-ordaina.

d) Familia laguntza.

e) Aparteko orduen konpentsazioa.

f) Jaiegunetan lan egitearen konpentsazioa.

g) Gauaz lan egitearen konpentsazioa.

h) Langileak hautatzeko epaimahaietan parte hartzeagatik eta prestakuntza ikastaroak emateagatik ematen diren konpentsazioak.

i) Lehenagoko ordainsariak foru lege honetan adierazitakoa aplikatuz ateratzen dena baino handiagoak izateagatik ematen diren konpentsazioak.

2. Norberaren oinarritzko ordainsariak eta aurreko zenbakiko C) letran adierazitakoak Nafarroako Administrazio Publikoen gainerako funtzionarioei oro har aplikatzekoak zaizkien arauen arabera banatuko dira.

42. artikulua. Lansari osagarriak.

1. Berariazko osagarria Nafarroako polizia kidegoetako kide guztiei ordainduko zaie eta haren gehieneko zenbatekoa kasuan kasuko mailako hasierako soldataren 100eko 55 izanen da. Osagarri hori kobratzearen ondorioz, debekaturik izanen dute irabazizko inolako jarduerarik egitea, ez sektore publikoan, ez eta pribatuan ere, non ez den irakasle lana unibertsitateko zentroetan, norberaren edo familiaren ondarea administratzea, lan zientifiko eta teknikoak edo literatur eta arte lanak ekoitzi eta sortzea, eztabaida eta programeetan noizbehinka parte hartzea, ikastaro profesionaletan noizbehinka lagundu eta parte hartzea eta baimendurik dauden beste jarduera batzuetan aritzea. Berariazko osagarriaren barrenean, arrisku bereziaren eta txandakako lanaren kontzeptuak sartzen dira.

2. Lanpostuko osagarriaren bidez zailtasuna, dedikazioa, erantzukizuna eta agindu beharra saritzen dira, bai eta eskatzen den prestakuntza tekniko berezia ere.

Lanpostuko osagarria izanen dute, orobat, kategoria baten barrenean aginte lan berezia egin behar duten lanpostuek, eta horrela jasoko da plantilla organikoan. Kontzeptu horri dagokion

saria ezin izanen da mailako hasierako soldataren %10etik gorakoa izan.

Lanpostuko osagarriak ezin izanen du kasuan kasuko mailako hasierako soldataren %85 gainditu.

3. Bigarren jardueran aritzeagatik ordaintzen den aldi baterako osagarri pertsonala foru lege honen 38,5 artikulua bigarren erroaldean ezarritako kasuetan aplikatuko da. Horretarako baldintzak eta prozedura erregelamendu bidez finkatuko dira.

4. Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Udaltzaingoa Koordinatzeko Batzordeak adostasun txostena eman ondoren, erregelamendu bidez zehazten ahalko ditu Nafarroako Udaltzaingoetako kideei ordaindu beharreko ordainsari osagarriak, foru lege honetako xedapenekin bat.

43. artikulua. Egoitza.

1. Polizia kidegoetako funtzionarioek destino herrian bizi beharko dute, salbu eta espresuki beste herri batean bizitzeko baimena ematen bazaie, horrek ez badie eragozten karguaren egin-behar eta eginkizunak betetzea. Baimenean baldintza batzuk ezartzen ahalko dira, izan ere, ikusiz gero han bizitzea bere eginkizunetarako kaltegarria dela behin eta berriz edo zerbitzua baldintzatzen duela, bertan behera utz daiteke, kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izan gabe.

2. Kanpoan bizitzeko baimena ematea, Foruzaingoaren kasuan, egitura organikoa ezartzeko foru dekretuan adierazten den organoari egokituko zaio eta, udaltzaingoaren kasuan, toki entitateko alkateari edo buruari.

44. artikulua. Agintaritzaren agenteak.

1. Beren eginkizunetan dihardutela, Nafarroako Foruzaingoko kideak, legezko ondorio guztietarako, agintaritzat joko dira.

2. Atentatu delitu bat gertatzen denean suzko armak, lehegailuak edo arrisku bereko beste baliabide erasagarriak erabiliz, eta horren ondorioz Nafarroako polizietako kideen gorputz osotasuna arrisku larrian jarri bada, zigor arloko ondorioetarako, poliziak agintaritzat joko dira, betiere atentatua edo eraso poliziala izateagatik eta lan horretan aritzeagatik izan baldin bada.

45. artikulua. Forua.

1. Beren eginkizunetan diharduela, hutsegite edo delitu diren egintzen ondorioz Nafarroako polizia kidegoetako kide baten prozedura kriminala gertatzen denean, Segurtasun Indar eta Kidegoe-

tako kide guztientzat oro har ezarrita dagoen foru berbera izanen du.

2. Nafarroako poliziako kideen aurka egindako delituak Segurtasun Indar eta Kidegoei buruzko Lege Organikoan ezarritako foruaren menpean egonen dira.

8. atala

Esker onak, ohoreak eta sariak

46. artikulua. Erregelamendu bidez arautzea.

1. Nafarroako Polizia kidegoetako kideen esker onak, ohoreak eta sariak erregelamendu bidez arautuko dira.

2. Nafarroako polizia kidegoetako kideei ematen zaizkien esker on, ohore eta sari guztiak norberaren espedientearen jasoko dira eta lanpostu hutsak betetzeko eta kategoriaz igotzeko prozesuetan merezimendu gisa baloratuko dira, lanbide karreraren ezaugarri nabarmen gisara.

9. atala

Eskubide pasiboak

47. artikulua. Eskubide pasiboak.

1. Nafarroako polizia kidegoetan sartzen direnak Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrari atxikiko zaizkio eta haren babespean geldituko dira.

2. Nafarroako polizia kidegoetako kideek hirurogeita bost urte betetakoan nahitaezko erretiroa hartuko dute, ofizioz.

10. atala

Ordezkaritza, negoziazio kolektiboa eta lan baldintzetan parte hartzea

48. artikulua. Aplikatu beharreko araubidea.

Nafarroako polizia kidegoetako funtzionarioen ordezkari, negoziazio kolektiboari eta lan baldintzetan finkatzeko eztabaidetan parte hartzeari dagokienez, Nafarroako Administrazio Publikoaren Langileria buruzko Estatutuan ezarrita dagoenari segituko zaio.

11. atala

Nafarroako Foruzaingoaren Kontseilua

49. artikulua. Izaera eta eginkizunak.

1. Aurreko artikuluan aurreikusitakoa deusetan galarazi gabe, Nafarroako Foruzaingoa organo paritario bat izanen du, hots, Nafarroako Foruzaingoaren Kontseilua.

2. Nafarroako Foruzaingoaren Kontseilua, kontseilari eskudunaren edo horren eskuordetza hartzen duen agintariaren lehendakaritzapean, Foruzaingoaren deliberazio, kontsulta eta proposamen organoa izanen da.

3. Hauek dira Nafarroako Foruzaingoaren Kontseiluaren eginkizunak:

a) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta Nafarroako Foruzaingoko kideen lan gatazka kolektiboetan bitarteko eta adiskidetze lana egitea.

b) Polizia lana egiteko baldintzak finkatzeko eztabaidetan parte hartzea.

c) Lanbidearen estatutuari buruzko galderak bideratzea.

d) Artikulu honetan aipatzen diren gaiei buruzko xedapen orokorren proiektuen gaineko txostenak egitea, hala eskatzen zaionean.

e) Foruzaingoko langileen arloko politikaren gaineko neurrien proposamenak aurkeztea.

f) Legeek eta xedapen orokorrek esleitzen dizkioten gainerako eginkizunak.

4. Nafarroako Foruzaingoaren Kontseiluaren txostena jasota, kontseilari eskudunak kontseiluaren funtzionamendu eta antolamendurako errege-lamendua onetsiko du.

50. artikulua. Kideak eta hautaketa.

1. Nafarroako Foruzaingoaren Kontseiluak Administrazioari zortzi ordezkari izanen ditu, kontseilari eskudunak izendatuak –horien artean kontseilaria bera edo horren eskuordetza hartzen duen agintaria- eta Foruzaingoko kideen beste zortzi ordezkari.

2. Foruzaingoaren Kontseiluko idazkari lana Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari funtzionario batek eginen du, zuzenbideko lizentziatu titulua izan behar duenak. Hizpidea izanen du, baina botorik ez.

3. Foruzaingoaren Kontseiluan Foruzaingoko dituen kideetatik zazpi ondoko idatz-zatietan xedatutakoaren arabera hautatuko dira. Zortzigarrena Foruzaingoko Langileen Batzordeak hautatuko du, bere kideen artean.

4. Foruzaingoko Kontseiluan izanen dituen ordezkariak hautatzeko deialdia egitea eta horretarako arauak onestea kontseilari eskudunari dago. Hauteskunde horiek Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren zerbitzuko langileen hauteskunde orokorrekin batera egiten ahalko dira.

5. Hauteskunde prozesua hasten den egunean jardunean, bigarren jardueran, zerbitzu berezietan edo eszedentzia berezian dauden Foruzaingoko funtzionarioak izaten ahalko dira hautesle eta hautagai. Eginkizunez gabetuak dauden Foruzaingoko kideak ere hautesle eta hautagai izan daitezke, ebazpena onartu edo bide juridikzionaletan irimo bilakatu bitartean, salbu eta prozedura juridikzional baten ondoriozko behin-behineko eginkizun-gabetzea denean edo, hutsegite oso larri bat dela kausa egindako epaiketaren agindutako eginkizun-gabetze irmoa denean.

6. Foruzaingoko Kontseiluan izanen dituen ordezkariak aukeratzeko hauteskundeak mailaz maila egiten dira, Foruzaingoko kideek boto pertsonala, zuzena eta sekretua emanaz. Hauteskundeak egiteko deialdia egiteko foru aginduan maila bakoitzean zenbat ordezkari hautatuko diren finkatuko da, proportzionaltasun irizpideen arabera. Nolanahi ere, maila bakoitzeko gutxienez ordezkari bat hautatzeko aukera bermatuko da.

7. Hautagaiak propio prestatuko diren zerrendetan aurkeztuko dira. Zerrendetan aukeratu beharreko ordezkariak adina hautagai azalduko dira, gehi bi ordezkari.

8. Nafarroako Foruzaingoaren Kontseiluan Foruzaingoko kideek izanen dituzten ordezkariak aukeratzeko, maila guztietan ordezkariak proportzionalaren sistema erabiliko da, izan ere, baliozko botoen ehuneko bost edo gehiago lortzen duen zerrenda bakoitzari ondoko eragiketa matematikoen arabera dagozkion postuak esleituko zaizkio:

Lehena. Baliozko botoen ehuneko bost edo gehiago lortu duten zerrendetako baliozko boto guztiak batuko dira.

Bigarrena. Baliozko boto guztien kopurua zati bete beharreko postuen kopurua egiten da.

Hirugarrena. Zerrenda bakoitzak lorturiko baliozko botoen kopurua zati aurreko eragiketaren lorturiko zatidura egiten da, eta gero eragiketa horretako emaitzaren zenbaki osoa zein den, horrenbeste ordezkari esleituko zaizkio kasuko zerrendari.

Laugarrena. Esleitu gabeko posturik gelditzen bada, adierazitako eragiketaren emaitzan hondarrik handiena duen zerrendari esleituko zaio.

Ordezkariak hautagai-zerrendan jarri diren ordena berean hautatuko dira.

9. Ordezkarien kargualdia lau urtekoa izanen da, hautetsiak aldarrikatzen direnetik aurrera. Kontseiluko tokiren bat hutsik gelditzen bada, kasuan kasuko zerrendan agertzen den hurrengo hautagaiak beteko du, baita ordezkari denean ere.

10. Praktiketako funtzionarioei ez zaie aplikatu-ko artikulu honetan xedatu dena.

51. artikulua. Foruzaingoaren kidegoaren ordezkariaren izaera galtzea.

Hautatzen diren ordezkariak honako kasu hauetan galduko dute ordezkari izaera:

- a) Karguari propio uko egitea, departamentu eskudunari jakinaraziz.
- b) Kargualdia bukatzea.
- c) Hautatu zeneko mailatik aldatzea.
- d) Funtzionario izaera galtzea.
- e) Heriotza.

12. atala Diziplina araubidea

52. artikulua. Legezkotasun eta erantzukizun printzipioak.

1. Nafarroako polizia kidegoetako langileak beren eginbeharrak ez betetzeagatik zehatuko dira bakar-bakarrik ez-betetze hori, foru lege honen arabera, diziplina hutsegitea denean.

2. Diziplina erantzukizunak ez du galarazten funtzionarioak izan dezakeen erantzukizun zibil edo penala.

3. Hutsegitea egitera bultzatzen dutenek eta hutsegitea onartzen duten nagusiek egileen erantzukizun berbera izanzen dute. Era berean, hutsegite bat estaltzen dutenek maila baxuagoko hutsegitea eginen dute. Estalitako hutsegitea arina bada, maila bereko hutsegitea egotziko zaio estaltzaileari, eta ohartarazpena eginez zehatuko da.

Hutsegitea dakarren egintza baten berri izanda, hierarkian gora dagoen nagusi eskudunari lehenbailehen ez jakinaraztea estalketatzat hartuko da.

4. Diziplina erantzukizuna kasu hauetan iraingiko da: zehapena beteta, hilez gero, hutsegitea edo zehapena preskribatuta edo indultuaren edo amnistiaren ondorioz.

53. artikulua. Diziplina hutsegiteen sailkapena eta preskripzioa.

1. Diziplina hutsegiteak arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke. Hutsegite arinek bi hilabeteren buruan preskribituko dute, larriek urtebeteren buruan eta oso larriek hiru urteren buruan.

2. Hutsegiteen preskripzio epea hutsegitea egin den egunean hasten da kontatzen.

3. Preskripzioa diziplina prozedura hasten denean etenen da.

54. artikulua. Hutsegite arinak.

Hauek dira hutsegite arinak:

a) Hiru hilabeteko apean, gehienez ere sei aldiz berandu iristea, bidezko arrazoirik gabe.

b) Hiru hilabeteko epean behin ez joatea lanera bidezko arrazoirik gabe, hutsegite larriagotzat jotzen ez bada.

c) Hiru hilabeteko epean behin ez egitea lanaldi osoa, bidezko arrazoirik gabe, hutsegite larriagotzat jotzen ez bada.

d) Herritarrekin, agintariekin, nagusiekin, lankide edo menpekoekin edo Segurtasun Indar eta Kidegoko beste kide batzuekiko harremanetan desegoki jokatzeko.

e) Zerbitzuko lokalak, instalazioak, ibilgailuak, materialak eta dokumentazioa gaizki erabiltzea edo axolagabekeriak zaintzea, betiere kalte larriarik eragiten ez bazaie.

f) Edozein eskaera edo erreklamazio erregelamenduzko bidetik aparte egitea, premiazko kasuetan ez bada.

g) Lanean dihardutela edari alkoholodunak edatea.

h) Lanerako baliabide informatiko eta materialak desegoki erabiltzea eta erabilera arauak ez betetzea, hala nola sistema informatikoetan sartzeko gakoak gaizki erabiltzea.

i) Norberaren garbiketari edo itxurari dagokienez, utzikeriak jokatzeko eta, orobat, uniformeari eta agurrari buruzko arauak ez betetzea.

j) Tresna edo baliabide ofizialak norberaren onerako erabiltzea edo horretarako bidea hirugarrenei erraztea, bidezko arrazoirik gabe eta nagusiari jakinarazi gabe.

k) Lanbide kredentzialak bidezko arrazoirik gabe erakustea.

l) Lanbide kredentziala galtzea, ustekabeen edo lapurretaren ondorioz.

m) Foru lege honen 4. artikuluan ezarritako printzipioen ondoriozko eginbeharrak ez betetzea, betiere hutsegitea larria edo oso larria ez bada, eta, orobat, polizia lanari dagozkion eginbehar eta betebeharretan berandu iristea edo zabarkeriaz edo utzikeriak jokatzeko, hutsegitea larriagotzat jotzen ez bada.

55. artikulua. Hutsegite larriak.

Hauek dira hutsegite larriak:

a) Hiru hilabeteko epean, sei aldiz baino gehiagotan berandu iristea, bidezko arrazoirik gabe.

b) Hiru hilabeteko epean lanera ez joatea lau aldiz gehienez, bidezko arrazoirik gabe, hutsegite larriagotzat jotzen ez bada.

c) Hiru hilabeteko epean, gehienez ere lau aldiz ez egitea lanaldi osoa, bidezko arrazoirik gabe, hutsegite larriagotzat jotzen ez bada.

d) Herritarrei, agintariei, nagusiei, lankide edo menpekoei edo Segurtasun Indar eta Kidegoetako beste kide batzuei begirunerik ez izatea.

e) Zerbitzuetako bulegoetan, instalazioetan, ibilgailuetan, materialean eta agirietan kalte larriak eragitea utzikieriaz erabiltzeagatik.

f) Zerbitzuaren berezko arloetan nagusiek idatziz edo ahoz emandako aginduak ez betetzea.

g) Legeek abstenitzeko ezarritako arrazoirien bat gertatzen denean, prozedura administratiboren batean parte hartzea.

h) Lanean dihardutela iskanbilak edo liskarrak sortu edo horrelakoetan parte hartzea.

i) Beren kargua dela-eta ezagutzen dituzten gaietan lanbideko sekretuaren betebeharra ez betetzea edo informazioa isilpean ez edukitzea, polizia lanari edo hirugarrenei kalterik eragiten ez zaienean.

j) Agintarien erabakiekiko edo laneko gaiekiko desadostasuna jendaurrean azaltzea, ahoz edo idatziz, baldin eta jokabide horrekin agintariei zor zaien begirunea galtzen bada edo galbidean jartzen bada, erabakiak betetzea arriskutan jartzen bada edo inor xaxatzen bada erabakiak ez betetzera, polizia zerbitzuen izen onari kalte egiten bazaio edo zerbitzua ematea galarazten ahal bada.

k) Beren eskurantzez gehiegikeriaz baliatzea, herritarren kaltean, hutsegite larriagotzat hartzen ez bada.

l) Zerbitzuari buruz txosten edo erabaki gezurrezko edo alderdikoiak egin edo hartzea, larriagotzat hartzen ez bada.

m) Nagusiei ez jakinaraztea haiek jakin behar duten edo lehenbailehen erabaki behar duten edozein kontu.

n) Arauzko armak zerbitzutik kanpo edo haiek erabiltzeko arauak hautsiz erabiltzea, gauzei edo pertsoneri kalte egin gabe.

o) Dolozko delitua den edozein jokabide izatea, askatasuna kentzeko zigorra ez badakar edo, baldin badakar, zigor hori urtebetetik beherakoa bada.

p) Zuhurtziagabekeriak eragindako delitu bat edo dolozko hutsegite penala egitea, polizia egin-kizunetan ari dela, edo foru lege honen 4. artikuluan aurreikusitako jarduketa arau funtsezkoari eragiten badie.

q) Bakarka nahiz taldeka obediencia ukatzeko egintzak prestatzea.

r) Zerbitzuan mozkortzea edo droga toxikoak, estupefazianteak edo substantzia psikotropikoak kontsumitzea zerbitzutik kanpo baina poliziaren edo funtzio publikoaren irudiari kalte eginez; bidezkoak diren egiaztapen teknikoak egiteari uko egitea.

s) Arrazoirik gabe, esleitutako zerbitzuan ez egotea edo bertatik alde egitea, lokartzea edo emandako zerbitzuak eskatzen duen arreta desbideratzen duen beste zerbitzetan aritzea.

t) Errendimendurik eza behin eta berriz eta arrazoirik gabe gertatzea, zerbitzuen eraginkortasunaren kaltetan bada, eta zerbitzurik ez ematea ustezko eritasuna izatearen aitzakian edo duen eritasuna baino larriagoaren plantak egitea, edo sendatzea eragotzi edo luzatzen duten jardueretan aritzea.

u) Eginkizunekin bateraezinak diren jarduera publiko edo pribatuetan aritzea.

v) Zabarkeria arinaren ondorioz armak galtzea, istripuz nahiz lapurtuta.

w) Menpekoak beren eskubideez balia daitezten galaraztea.

x) Gertaera edo inguruabar larrietan lehenbailehen laguntzarik ez ematea, horretara beharturik egonez gero.

y) Polizia lanetan aritzeak dakartzan betebeharrak eta beharkizunak ez betetzea zabarkeria larriaren ondorioz.

z) Organo eskudunak zehapen administratiboa ezarri izana herritarren segurtasunari buruzko otsailaren 21eko 1/1992 Lege organikoaren 25.1 eta 23 c) artikuluetan tipifikaturiko jokabideetako- ren baten ondorioz.

54. artikulua. Hutsegite oso larriak.

Hutsegite oso larriak:

a) Hiru hilabeteko epean lanera ez joatea lau aldiz baino gehiago, bidezko arrazoirik gabe.

b) Hiru hilabeteko epean, lau aldiz baino gehiagotan ez egitea lanaldi osoa, bidezko arrazoirik gabe.

c) Dolozko delitua den edozein jokabide izatea, askatasuna kentzeko zigorra, urtebetetik gorakoa, baldin badakar.

d) Kargua dela-eta ezagutzen dituen aferetan, sekretu profesionala eta isilpea urratzea, poliziaren eginkizunei edo edonori kaltea eragiten zaienean.

e) Entitateen edo partikularren eskupekoak eskatu edo onartzea, emaniko zerbitzuen esker onez edo oparitako.

f) Bakarka nahiz taldeka ez obeditzea.

g) Eginkizunetan ari dela, Nafarroako Foru Eraentzari zor zaion begirunea izatea eta Konstituzioari eta legeei men egin beharra ez betetzea.

h) Lanuzteetan edo hitzarturiko ekintzetan parte hartzea, zerbitzuen funtzionamendu egokia galarazteko helburuarekin.

i) Neutraltasun edo independentzia politikoa urratzea, esleituriko ahalmenak edonolako edo edonongo hauteskundeetan erabiliz.

j) Herritarrei, menpekoei edo administrazioari kalte larria eragiten dien agintekeria, bai eta zaintzapean dituen pertsonak torturatzea edo gizalegez ez tratatzea, mesprextatuz, diskriminatuz edo laidotuz.

k) Droga toxikoak, estupefazianteak edo substantzia psikotropikoak kontsumitzea zerbitzuan ari dela edo horretarako ohitura izatea; egoera fisiko edo psikiko ez-ohikoan egonik, uko egitea bidezkoak diren egiaztapen teknikoak egiteari.

l) Arauzko armak zerbitzutik kanpo edo zerbitzuko egintzetatik kanpo erabiltzeari buruzko arauak hautsiz erakutsi edo erabiltzea, horren ondorioz gauzei edo pertsonaei kalte egiten bazaie edo alarma publikoa gertatu bada.

m) Zabarkeria larriaren ondorioz armak galtzea, istripuz nahiz lapurtuta.

n) Edozein eginbehar profesional ez betetzea, zerbitzu publikoen funtzionamendu egokia nabarmen eragotziz gero edo administrazioari edo herritarrei kalte larriak eraginez gero edo pertsona edo ondasunentzat edo segurtasun publikoarentzat arrisku nabarmena sorraraziz gero.

57. artikulua. Zehapenak.

1. Hutsegite arinek zehapen hauek jaso ditzakete:

a) Ohartarazpena.

b) Enplegu-soldaten etenaldia, egun batetik zortzi egunera bitartekoa, antzinasuna galdu gabe, ondorio guztietarako.

2. Hutsegite larriek zehapen hauek jaso ditzakete:

a) Beste lanpostu batera aldatzea, beste herri batean edo herri berean, lansari osagarriak egokituz eta kalte-ordainak jasotzeko eskubiderik gabe.

b) Enplegu-soldaten etenaldia, bederatzi egunetik hogeita hamarrera bitartekoa, antzinasuna galdu gabe, ondorio guztietarako.

c) Eginkizunen etenaldia, hiru hilabetez gehiezez.

3. Hutsegite oso larriek zehapen hauek jaso ditzakete:

a) Eginkizunen etenaldia, hiru hilabetez hiru urtera bitartekoa.

b) Zerbitzutik kentzea.

4. Zerbitzutik kentzeko zehapenak funtzionario izaera galtzea ekarriko du berekin.

Eginkizunen etenaldiko zehapenak funtzionario izaerari dagozkion eskubide guztiak galtzea ekarriko dio zehapena jaso duen funtzionarioari, zehaztuko den denborarako.

5. Zehapen espediente irekitzen zaien funtzionarioak Nafarroako Polizia kidegoetako igoera edo hautapen prozeduretara aurkeztu ahaliko dira. Halere, lanpostu berriaren jabetza ez da hartuko espediente ebatzi arte, eta bitarte horretan ez da inolako kalte-ordainik jasotzerik izanen.

6. Zehapena jaso eta aurrekariak deuseztatzea lortu ez duten funtzionarioak ezin izanen dira aurkeztu Nafarroako Polizia Kidegoetako igoera edo hautapen prozeduretara aurrekari horiek deuseztatzen ez diren bitartean.

7. Lekualdatzeko zehapena jaso duten funtzionarioek ez dute euren borondatez eta inongo prozedura erabiliz beste destinatorik lortzerik izanen jatorrizko herrian, zehapen ebazpenean ezarritako urtebeteko edo bi urteko epean, lekualdatzea egiten den unetik hasita.

8. Ez dira zehapena izanen puntualitatean atzeratzeagatik edo lanera arrazoirik gabe ez etortzeagatik lansariei proportzioan eginiko murrizketak. Murrizketak zuzenean eginen dira eta beti.

9. Diziplina zehapenak espediente pertsonaletan jasoko dira, zer hutsegitek eragin dituzten adierazirik.

10. Zehapenak mailakatzeko kontuan hartuko dira, betetze eta ez-betetzez gain, honakoak ere, proportzionaltasunaren printzipioarekin bat:

- a) Nahita egitea.
- b) Zerbitzuen funtzionamendu egokian sortutako nahasmendua.
- c) Administrazioari edo herritarrei eragindako kalte eta galerak.
- d) Hutsegiteetan berrerortzea.
- e) Hutsegitean edo ez-betetzean izandako parte-hartzearen maila.
- f) Segurtasun publikoari begira izandako garrantzia.
- g) Administrazioaren edo polizia zerbitzuen irudiari eragindako kaltea.

11. Hutsegite oso larriengatik ezarritako zehapenak lau urteren buruan preskribatzen dira, hutsegite larriengatik ezarritakoek bi urtera eta hutsegite arinengatik ezarritakoek bi hilabetera.

58. artikulua. Berrerortzea eta aurrekariak deuseztatzea.

1. Hauxe da berrerortzea: hutsegitearen unean funtzionarioak beste zehapen bat duenean, ebazpen irmoaren bidez ezarria hutsegite larriago batengatik edo larritasun bereko edo deuseztatu ez diren larritasun txikiagoko bi hutsegiterengatik.

2. Deuseztapena ofizioz egingen da zehapena bete eta bi edo lau urte iraganik, hutsegite larrien edo oso larrien kasuan, hurrenez hurren, betiere zerbitzutik bereizteko zehapena jaso ez badute.

3. Hutsegite arinengatik ezarritako ohartarazpenak ofizioz deuseztatuko dira bete eta sei hilabetera.

4. Deuseztatzearen ondorioz, ohartarazpena baliogabetu egingen da, eta ez da haren ziurtagiririk egiterik izanen, salbu eta agintari eskudunek eskatzen badute eta espediente pertsonalaren ondorioetarako soilik.

59. artikulua. Hutsegite larrien eta oso larriengatik diziplina espedienteak ireki eta zehapenak ezaritzeko eskumena.

1. Honako hauena da hutsegite larrien eta oso larriengatik diziplina espedienteak ireki eta zehapenak ezartzeko eskumena:

a) Nafarroako Foruzaingoan, kasuan kasuko foru dekretuan ezartzen den zuzendari nagusiarena.

b) Udaltzaingoetan, alkatearena edo toki entitateko buruarena.

2. Zehapen larriak edo oso larriak ezartzeko eskumena arau hauen menpe egonen da:

a) Nafarroako Foruzaingoan, Nafarroako Gobernuak izanen du zerbitzutik bereizteko zehapena ezartzeko eskumena, kontseilari eskudunak hutsegite oso larriengatik zehapenak ezartzekoa, eta zuzendari nagusi eskudunak hutsegite larriengatik zehapena ezartzekoa.

b) Udaltzaingoetan, eskumena kasu guztietan alkatearena izanen da.

60. artikulua. Hutsegite larriak edo oso larriak ezartzeko prozedura.

1. Hutsegite larri edo oso larriengatik diziplina espediente irekitzeko eskumena duen organoak behin-behineko etenaldia edo beste lanpostu batera atxikitzea erabaki dezake, kautelazko neurri gisa, destino herri berean nahiz beste batean. Behin-behineko neurriak hartzeko ebazpena eman baino lehen, interesatuari entzunaldia eman zaio, hiru egun baliodunez. Nolanahi ere, presa edo arrisku handiko kasuetan, buruak edo ofizialak arma eta kredentziala kendu ahalko dizkiote funtzionarioari kautelazko neurri gisa, eta etenaldirako eskumena duen organoak hiru egun balioduneko epean, gehienez ere, berretsi beharko du erabaki hori.

2. Behin-behineko etenaldiak edo beste lanpostu bati behin-behinekoz atxikitzeak espedientaturik edo auzipeturik dagoen funtzionarioak arma, kredentziala eta uniforme behin-behinekoz galtzea ekar dezake, bai eta bere kidegoko instalazioetara baimenik gabe sartzeko debekua ere. Kautelazko neurriei eutsi edo horiek bertan behera uzteari buruzko ebazpena ematerakoan egindakoen larritasuna baloratuko da, bai eta kasu bakoitzaren inguruabar zehatzak eta espedientaturiko funtzionarioaren espediente pertsonala. Kautelazko neurriak ezarri edo luzatzea erabakitzen duen ebazpena arrazoitua izan beharko da.

3. Behin-behineko etenaldia erabakitzen bada, hilabetekoa izanen da, eta epe hori beste hilabetez luzatu ahalko da, sei hilabete egin arte gehienez.

4. Behin-behineko etenaldian dauden funtzionarioek eskubidea izanen dute, soilik, beren mailako hasierako soldatari, graduari, antzinatasuneko sariari eta familia laguntzari dagozkien lansariak. Behin-behineko etenaldiaren denbora kontuan hartuko da eginkizunen etenaldiaren zehapena betetzearen ondorioetarako, zehapen hori ezartzen bada. Behin-behineko etenaldia irmo bilakatu-

ko ez balitz, funtzionarioari kendu zaizkion eskubide guztiak aitortuko zaizkio.

Espedientaturiko funtzionarioa beste lanpostu bati behin-behinekoz atxikirik egon beharreko denbora ez da izanen diziplina espedientearen iraupena baino luzeagoa.

5. Hutsegite larri edo oso larriengatiko zehapen espedientea hasi baino lehen, diziplina espedientea irekitzeko eskumena duen organoak, gertaerak argitze aldera, aurretiazko informazioaldi bat irekitzeko agindu ahalko du, kasu zehatzaren zer-nola-koak ikertu eta prozedura abiarazi behar den ala ez den erabakitzeke.

Zilegi izanen da aurretiazko informazio hori erreserbatua izatea, eta ez da hilabete batetik goiti luzatuko, non eta espresuki ez den erabakitzen beste epe jakin baterako edo batzuetarako luzatzea.

Zenbaki honetan aipatzen diren aurretiazko jarduketengatik ez da zehapen prozedura irekitzat hartuko.

6. Prozedura diziplina espedientea irekitzeko eskumena duen organoak hala ebatzirik irekiko da, ofizioz edo salaketaren ondorioz gauzaturako jarduketez baliatuz.

Diziplina espedientea hasten duen ebazpenak egintzetarako instruktorea izendatuko du eta ustezko arau-hausleari jakinaraziko zaio eta, salatzailerik izan bada, hari ere bai.

Funtzionario edo administrazio kontratudun bat izendatuko da instruktore, hautapen prozeduran zuzenbideko lizentziatuaren titulua eskatu zaienetako bat hain zuzen. Ustez larriak diren hutsegiteen kasuan, goragoko lanpostua duen polizia kidegoko kide bat izendatu ahalko da horretarako.

7. Instruktoarak karguen plegu bat idatziko du, zehapen proposamena eta guzti, eta ustezko arau-hausleari jakinaraziko zaio. Hark hamar egun balioduneko epea izanen du bere eskubideen alde bidezko iruditzen zaizkion alegazioak egiteko eta datuak, informazioak edo dokumentuak aurkezteko, bai eta kasurako iruditzen zaion froga proposatzeko.

Karguen pleguan beti honako jakingaiak ezarriko dira:

a) Ustezko arau-hausleen identifikazioa.

b) Egitate egiaztatuak, arau-haustea tipifikatzeko eta zehapenak mailakatzeko garrantzia dutenak nabarmendurik.

c) Ustezko arau-haustea, hautsitako araua edo arauak zein diren zehazturik.

d) Zehapenik tokatzen bada, zein den, zenbatekoa den eta zein mailatakoa den.

e) Zein organok duen prozedura ebazteko eskumena eta zein arauk ematen dion eskumen hori.

8. Espedientatuak bere borondatez aitortzen badu erantzulea dela, instruktoreak organo eskudunari igorriko dio espedientea, ebazpena eman dezan, ezertan galarazi gabe tramitatzen segitzea, iruzur zantzu arrazoizkorik badago edo beste pertsona edo entitate errudunen bat isilpean geratu den susmoa badago, edo prozedura hasteak sortu duen kontua ororen interesekoa bada.

9. Ofizioz edo ustezko arau-hausleak eskatuta, behar adina frogak egin edo onartuko dira, gertatutakoak eta erantzukizunak finkatzeko. Gertaerekin duten loturagatik azken ebazpena ustezko arau-hauslearen alde aldatu ezin duten frogak soilik ukatu ahalko dira.

10. Alegazioak aurkezteko aurreikusitako epea iraganik, frogarik egin behar bada frogak eginik, eta beharrezko irizten zaien eginbideak egin ondoren ere, instruktoreak karguen plegua jakinarazpenean bezala mantentzen badu, organo eskudunari igorriko dio espedientea, eta horrek gehienez hilabeteko epean eman beharko du kasuko ebazpena edo bestela instruktoreari aginduko dio beharrezko iruditzen zaizkion eginbide osagarriak egin ditzala.

Egindako alegazio eta frogen ondorioz gertaera berririk edo bestelakorik azaltzen bada, edo karguen pleguan aipatzen dena baino larriagoko kalifikazioa sortzen bada, instruktoreak karguen plegu berria eginen du bidezko den zehapenarekin eta interesatuari jakinaraziko dio, hark hamar egun balioduneko epean bidezko iruditzen zaion guztia alega dezan.

Aurreko lerroaldean agindu denetik kanpo uzten dira kasu horiek baldin eta gertaera berriak edo hutsegitearen nahiz zehapenaren kalifikazio berriak alegazioen edo espedientearen interesatuak hala eskatuta egindako frogen ondoriozkoak badira, ezarri beharreko zehapena hasiera batean proposatutakoa baino larriagoa ez denean.

11. Organo eskudunak bidezkoa den ebazpena emanen du, ebazpen arrazoitua alegia. Ebazpenean espedientearen planteaturiko gai guztiak ebatziko dira.

Ez da zilegi izanen prozeduran barna egiaztatu direnez kanpoko gertaerarik onartzea ebazpenean, nahiz eta beste balorazio juridiko bat izan.

Diziplina prozedurari amaiera ematen dion ebazpenean egindako frogen balorazioa jasoko

da, bereziki erabakia oinarritzeko erabili direnena, eta bertan finkatuko da zein izan diren egitateak eta zein erantzulea edo erantzuleak, egindako hutsegiteak eta ezarritako zehapena edo zehapenak.

Ebazpena administrazio bidean irmo bihurtzen denean izanen da betearaztekoa.

Ebazpenean, hala erabakitzen bada, behar diren kautelazko neurriak hartuko dira betearazi artean ebazpenaren eraginkortasuna segurtatzeko.

12. Diziplina prozedura ebazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izanen da, espedientea irekitzeko ebazpena eman zen egunetik hasita. Epe hori gehienez ere beste sei hilabetez luzatu ahalko da, organo eskudunak emandako ebazpen arrazoiuaren bidez. Epe horren ondorioetarako ez da inolaz ere kontuan hartuko diziplina espedientea ustezko erantzuleari egotzi ahal zaion arrazoiengatik geldiarazirik dagoen denbora.

61. artikulua. Hutsegite arinak.

1. Diziplina espedienteak ireki eta hutsegite arinak ezartzeko eskumena honako hauena izanen da:

a) Nafarroako Foruzaingoan, Foruzaingoko buruarena.

b) Udaltzaingoetan, alkatearena edo toki entitateko buruarena.

2. Hutsegite arinengatik zehapenak ezartzeko prozedura laburtua hauxe izanen da:

Organo eskudunak hutsegitearen ustezko erantzuleari idatzi bat jakinaraziko dio, bertan jasota egozten zaizkion egitateak eta zehapen proposamena, eta adierazirik zein arautan ageritzen den hutsegitea.

Inputatuak hiru egun balioduneko epea izanen du idatziz bere interesen alde egoki dena organo eskudunari alegatzeko.

Epe horretan alegaziorik egiten ez bada, egotzitako zehapena behin betikoa izanen da.

Alegaziorik egiten bada, organo eskudunak horiek ikusirik egitateak kendu, aldatu edo berretsi egiten ditu, eta idatziz ezarriko du bidezkoa den zehapena.

62. artikulua. Jakinarazpena eta idazpena.

Interesatuari eta behar diren administrazio organoei diziplina espedienteari amaiera emanen dion ebazpena edo egintza jakinaraziko zaie, eta zehapena ezartzen badu haren espediente pertsonalean idatziko da.

Xedapen gehigarriak

Lehenbizikoa. Langileak atxikitzea Nafarroako Foruzaingoaren unitate organikoari.

Zerbitzuaren beharrek hala justifikatuz gero, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioko funtzio publikoaren eskumena duen organoak polizia ez diren langileak atxiki ahalko dizkio Nafarroako Foruzaingoko unitate organikoari, administrazio horretako funtzionarioen artean libreki hautatu ondoren, eginkizun teknikoetan aritzeko edo laguntza administratiboa edo exekutiboa emateko. Langile horiek Foruzaingoko buruaren eta gainerako aginteen menpe egonen dira.

Bigarrena. Toki entitateetako polizia kidegoen antolaketa araudiak.

Polizia kidegoak dituzten toki entitateek antolaketa araudiak egin edo egokituko dituzte, foru lege honek indarra hartzen duenetik urtebeteko epean.

Hirugarrena. Datu basea.

Nafarroako polizia guztiek erabiltzen dituzten giza baliabideen datu base eguneratua izanen du departamentu eskudunak.

Laugarrena. Aplikazio osagarria.

Foru lege honetan aurreikusirik ez dagoen guztian, Nafarroako polizia kidegoetako langileei Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen estatutuaren arau orokorretan ezarritakoa izanen zaie aplikatzekoa, betiere aplikazio hori ez bada haien aurreikuspenen edo printzipio orokorren kontrakoa.

Xedapen iragankorrak

Lehenbizikoa. Lanpostu hutsak betetzeko prozedurak.

Sartu eta lanpostu hutsak betetzeko foru lege honek indarra hartu aurretik abiatutako prozedurek deialdiaren unean erabili zen araudiaren menpe segituko dute.

Bigarrena. Nafarroako Foruzaingoaren Kontseiluaren eraketa.

Nafarroako Foruzaingoaren Kontseilua foru lege honek indarra hartu eta urtebeteko epean eratuko da.

Hirugarrena. Diziplina espedienteak.

Foru lege honek indarra hartzen duenean tramitatzen ari diren diziplina espedienteak aurreko

xedapenek arautuko dituzte, salbu eta arau hau onuragarriagoa baldin bada.

Laugarrena. Poliziaren langileak hautatzeko prozesuak amaituta geratzen diren lanpostu hutsen alde aurretiko deialdia eta suhiltzaileentzako arau-homogeneizazioa.

Polizia kidegoa edo Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzua duten Nafarroako administrazio publikoek, horietan lanpostu hutsak badituzte eta lanpostu horiek lan eskaintza publikoan sartzen badira betetzeko, beren egitura hierarkikoetan maila apalagokoak diren beste batzuk gehitu ahalko dizkiete aurrekoei deialdi publikoan, hasierako lanpostuak bete ondoren geratu diren lanpostu hutsetarako aurrekontuan dagoen diru kopuruaren kargura.

Bosgarrena. Baliokidetzeeen taula.

Foru lege honek indarra hartzean Nafarroako polizia kidegoetakoak diren funtzionarioak 33. artikuluan ezarritako lanpostu eta maila hauetan sartuko dira:

- a) Comisario nagusia: ofiziala.
- b) Komisarioa: Inspektorea.
- c) Inspektorea: Inspektoreordea.
- d) Inspektoreordea: sarjentua.
- e) Lehen mailako polizia: kaboia.
- f) Polizia: Polizia edo agentea.

Xedapen indargebetzailea

Bakarra. Indargabetzen diren arauak.

Indarrrik gabe uzten dira foru lege honetan ezarritakoari aurka egiten dioten maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak. Zehazki, honakoak gelditu dira indarrrik gabe:

a) Urriaren 14ko 213/2002 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Nafarroako Polizia Kidegoei buruzko Foru Legearen testu bategina.

b) Nafarroako Babes Zibilari eta Larrialdien Kudeaketari buruzko uztailaren 1eko 8/2005 Foru Legearen seigarren xedapen gehigarria.

Azken xedapenak


Lehenbizikoa. Erregelamendu bidezko garrantzia.

1. Foru lege honetan arloko eskumena duen kontseilariari, espresuki, erregelamenduzko garrantzia egiteko esleitzen zaizkion eskumenak galarriz gabe, Nafarroako Gobernuak foru lege honen xedapenak garatu eta aplikatzeko behar diren erregelamenduzko arauak emanen ditu.

2. Foru lege hau garatzen duten erregelamenduek indarra hartu arte, aurretik emandakoak eta indarra dutenak izanen dira aplikatzekoak, honi kontra egiten ez dioten guztian.

Bigarrena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonia *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu.

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete 43,95 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,15 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,30 »	